


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PAROT DOKTRINA

2019-2020 IKASTURTEA

ZUZENBIDE GRADUKO: GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Ioritz Labandibar Sagarzazu

Zuzendaria: Miren Odriozola Gurrutxaga

Donostian, Ekainaren 18an

Abstract

This paper seeks an approach to the “Parot Doctrine”, since its beginning in the Spanish Supreme Court until the case “Del Rio v. Spain” in the European Court of Human Rights. For that purpose, the aim of this paper is to study the principle of legality, both in the Spanish legal system and also in the European Human Rights Convention. However, the combining of sentences, the remissions of sentence for work and the policies will also be taken into account in this work.

Este trabajo es una primera aproximación a la evolución de la Doctrina Parot, desde sus inicios en el Tribunal Supremo hasta la decisión del Tribunal Europeo de Derechos Humanos sobre el caso “Del Rio c. España”. Para ello, la presente contribución se centrará en estudiar el principio de legalidad, tanto en el ordenamiento jurídico español como en el Convenio Europeo de Derechos Humanos. Además, la acumulación de las penas, la rendición de penas por trabajo y el contexto de las normas también serán objeto de estudio.

Ce travail est une approche de l'évolution de la Doctrine Parot depuis ses débuts à la Cour Supreme, jusqu'à la décision du tribunal Européen des Droits de l'homme concernant l'affaire «Del Rio c. Espagne». En fait, il a pour objectif d'étudier le principe de légalité, aussi bien du système juridique espagnol que celui de la Convention Européenne des Droits de l'Homme. De plus, le cumul des peines, les remises de peine pour travail et le contexte des normes sont également analysés.

Lan honen xedea Parot Doktrinaren eboluzioaren inguruko hurbilketa egitea da, eta horretarako Auzitegi Goreneko lehen epaitik Giza Eskubideen Europar Auzitegiko “Del Rio c. Espainia” kasura arteko jurisprudentzia ikertuko da. Horrez gain, ikerketa honek legezkotasun printzipioak Espainiako Ordenamendu juridikoan eta Giza Eskubideen Europar Hitzarmenean duen arauketa jasoko du. Halaber, zigorren metatze arauak, lanaren bidez zigorra ordaintzea eta arauen testuingurua, lanaren parte izango dira.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1 orl.
2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK.....	4 orl.
2.1. LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA. BERME KRIMINALA.....	4 orl.
A) JATORRIA.....	4 orl.
B) BERMEAK.....	5 orl.
C) ESPAINIAKO KONSTITUZIOA.....	7 orl.
D) GEEH 7. ARTIKULUA.....	9 orl.
2.2. ZIGORRAREN METATZE MATERIALA ETA GEHIENENKO MUGA.....	11 orl.
2.3. ZIGORRA LANAREN BIDEZ ORDAINTZEA.....	18 orl.
2.4. 1995-EKO ZIGOR KODEA TESTUINGURUA.....	22 orl.
3. IBILBIDE JURISPRUDENTZIALA.....	25 orl.
3.1. ENTZUTEGI NAZIONALEKO AUTOA.....	25 orl.
3.2. AUZITEGI GORENEKO EPAIA.....	26 orl.
a) EPAIA.....	26 orl.
b) BOZKA PARTIKULARRAK.....	29 orl.
3.3. KONSTITUZIO AUZITEGIKO EPAIA.....	32 orl.
a) EPAIA.....	32 orl.
b) BOZKA PARTIKULARRAK.....	35 orl.
3.4. GIZA ESKUBIDEEN EUROPAR AUZITEGIA.....	37 orl.
a) LEHENENGO AUZITEGI-GELAKO EPAIA.....	37 orl.
b) AUZITEGI-GELA HANDIKO EPAIA.....	44 orl.
4. ONDORIOAK.....	46 orl.
5. BIBLIOGRAFIA.....	48 orl.

1. SARRERA

Parot Doktrina Espainian egon den jurisprudentzia garapen polemikoetako bat izan zen. Labur azalduz, jurisprudentzia berri honek espetxe-onurak zigorraren gehieneko mugatik aplikatu beharrean, ezarritako zigor bakoitzetik aplikatze ekarri zuen¹.

Auzitegi Gorenak sortutako jurisprudentzia berri hau behar bezala ulertzeko, ekarpen umil honetan, lehenik legezkotasun printzipioa, bigarrenik zigorraren metatze arauak, hirugarrenik zigorra lanaren bidez ordaintzea eta laugarrenik 1995eko Zigor Kodea eta bere testuingurua landuko dira, horrela ondoren Parot Doktrinak izandako ibilbide jurisprudentziala aztertzeko.

Hasteko legezkotasun printzipiori erreparatuko zaio, izan ere, ez zegoen argi printzipio honen norainokotasuna zigorrera soilik edo zigorraren betearazpenaren ere ailegatzen zen. Horretarako, alde batetik, printzipio honi buruzko doktrina eta Espainiako Ordenamenduko arauak jasoko dira. Halaber, Giza Eskubideen Europar Auzitegiak (aurrerantzean GEEAk), printzipio honen inguruan “Kafkaris c. Zipre” epai² bitartez emandako eraldaketa ere aztergai izango da.

Ondoren, ekarpen honen beste oinarrietako bat zigorraren metatze arauak 1848ko Zigor Kodetik 1995eko Zigor Kodera jasandako garapena da. Horrela, Parot Doktrina bera eta 1973ko eta 1995eko Zigor Kodeko araudia argiago azaldu nahi izan da. Halaber, Prozedimendu Kriminaleko Legeko (aurrerantzean PKL-ko) 988. artikuluan zigorrak metatzeko konexio irizpideak ere jasoko dira. Berebiziko garrantzia dauka atal honek, izan ere, Parot Doktrinak zigorra lanaren bidez ordaintzeko espetxe-onura³ modu berri honetan aplikatzeak barneratuei 10-15 urte bitarteko espetxe aldiaren luzapena sortu zien.

Jarraian, zigorra lanaren bidez ordaintzeko erakundearen berri emango da. Erakunde hau Espainiako Guda Zibilaren ondoren sortu zen, gerra ondorengo preso politikoen kantitate handia zela-eta, egoera horri, Frankismoko erakundeek erantzun bat eman behar baitzioten. Hala ere,

¹ Auzitegi Goreneko, Zigor Arloko 1223/2005 epaia, 2005ko urriaren 14koa: “el límite de treinta años no se convierte en una nueva pena, distinta de las sucesivamente impuestas al reo, ni por consiguiente, en otra resultante de todas las anteriores, sino que tal límite representa el máximo de cumplimiento del penado en un centro penitenciario”.

² Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko, *Kafkaris c. Zipre* 21906/04 epaia, 2008ko Otsailaren 12koa.

³ 3096/1997ko Zigor Kodearen 100. artikulua.

aurrerago ikusiko dugun bezala, erakundearen izaera Frankismotik Demokraziara erabat aldatu zen: 1973ko Zigor Kodeko arauketan espetxe-onura bat bihurtu zen arte.

Era berean, 1995eko Zigor Kodea eta testuingurua ere aztergai izango dira, eta horretarako 2003an Zigor Kodeari egindako erreforma azalduko da. Izan ere, 21. mende hasieran, Espainiako politikarien zein komunikabideen helburuetako bat ETAko presoek zigorraren gehieneko muga oso osoki betetzea zen.

Helburua lortzeko, 1995eko Zigor Kodeari, 7/2003 Lege Erreformaren bitartez, aldaketa garrantzitsu bat egin zitzaion: Espetxe-onurak, gehieneko mugatik aplikatu beharrean, kondena material osotik aplikatzea. Dena dela, 2003ko erreformaz geroztik gauzatutako egitateei aplikatuko zitzairen aldaketa hau, izan ere, *contra reo* diren arauen atzeraeraginkortasun ezaren printzipioa zela-eta, aurreko egitateei ezin izan zitzairen aplikatu.

Entzutegi Nazionaleko 2005eko apirilaren 26ko autoak⁴ zigorraren metatzeei buruzko arauak aldatuz ibilbide jurisprudentealari hasiera eman zion. Auto honek legegilearen xede bera zuen, barneratuak zigorrak oso osoki betetzea. Horretarako, Entzutegi Nazionaleko lehenengo salak Henri Paroti ezarritako zigorrak bi multzotan jasotzea erabaki zuen, eta ez ordura arte egin zen bezala multzo bakarrean.

Paroten abokatuek, Entzutegi Nazionaleko auto hau jasotzean, kasazio-helegite bat tarteratu zuten. Auzitegi Gorenak, 197/2006 epaian, aurreko autoaren antzeko helburua zuen jurisprudenzia-ildo berri bat sortu zuen: espetxe-onurak zigorraren gehieneko mugatik aplikatu beharrean, kondena osoko zigor bakoitzetik aplikatzea. Doktrina berri honek gehieneko muga zigor berri eta autonomo izatetik oso-osoki betetzeko gehieneko muga bat bihurtu zuen (kondena luzeak zituzten presoek kasuetan).

Bestalde, honek ondorio nabarmenak izan zituen presoentzat, izan ere, espetxe-zigorra hilabete gutxietara bukatu behar zuten presoek 10-8 urtez luzatu zitzairen espetxe zigorra. Horrela, zigorrak oso-osoki betetzeko helburua lortuz.

⁴ Entzutegi Nazionaleko, Zigor Arloko Salako (lehenengo Atalaleko), 2013/136552 Autoa, 2005eko Apirilaren 26koa.

Oro har, Konstituzio Auzitegiak Parot Doktrina berretsi zuen. Konstituzio Auzitegiko magistratuen aburuz, zigorra oinarrian ez zen aldatu (30 urteko gehieneko mugak izaten jarraitzen baitzuen), soilik zigorraren betearazpena zehazteko arauak aldatu ziren. Ondorioz, zigorraren betearazpeneko atalak, besteak beste, zigorra lanaren bidez ordaintzea, espetxe-onurak, etab. legezkotasun printzipioaren barruan ez zirela barne biltzen erabaki zuten.

Amaitzeko, GEEAko atala aztertzerakoan legezkotasun printzipioaren norainokotasuna aztertzea biziki garrantzitsua da, Parot Doktrinaren norainokoa zigorraren betearazpenaz gain zigorrera ailegatzen ote zen jakiteko. Jarraian ikusiko den bezala, aldaketa “Kafkaris c. Zipre” epiairekin etorri zen. Epai honetan, zigorraren eta zigorraren betearazpenaren bereizketa ez zela argia erabaki baitzen. Horrela, ordura arte zigorraren eta zigorraren betearazpenaren arteko bereizketa erradikalarekin apurtu zen. Amaitzeko, testuinguru honetan iritsi zen “Del Rio c. Espainia” kasua GEEAra.

2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

2.1. LEGEZKOTASUN PRINTZIOA

a) Legezkoatasun printzipioaren jatorria⁵

Legezkoatasun printzipioak Feuerbachek egindako *nullum crimen, nulla poena sine lege* latineko espresioa du oinarri. Printzipioa hau Frantziako Iraultzaren garaipenik garrantzitsuenetako bat izan zen, eta lehen aldiz 1789ko Abuztuaren 26ko Giza Eskubideen Deklarazioan jaso zen⁶.

Legezkoatasun printzipioak ilustrazioko teoretiko kontratu soziala zuen oinarri. Kontratu sozialak aurreikusten zuen botere banaketan oinarritutako egitura politiko bat egongo zela, zeinetan herrien ordezkariak legeak sortuko zituzten. Hori botere legegilearen bitartez gauzatuko zatekeen, izan ere, botere legegileak herritarren ordezkariak osatuko zuketzen. Rosseauren arabera Estatuak ez zuen legeengatik bizirauten, botere legegilearengatik baizik. Izan ere, Rousseau jaunak esan zuen bezala, "atzoko legea ez zen derrigorrezkoa gaur, baina isilpekoa kontsentimendua betirako ontzat emango zen"⁷.

Ondorioz, legezkoatasun printzipioa ez zen solik segurtasun juridikoaren berme bat. Kontratu horri esker, berme politiko bat sortzen zen, estatua hemendik aurrera hiritarrek kontrolatuko baitzuten. Oro har, *nullum crimen nulla poena sine lege* printzipioa "estatu jakintsu" guztietara zabaldu zen⁸. Besteak beste, Espainiako 1820 Konstituzioak eta Kode zibilak jaso zuten. Gaur egun, Espainiako Konstituzioko 9.3 eta 25.1 artikuluetan dago araututa.

b) Legezkoatasun printzipioaren bermeak

Legezkoatasun printzipioaren bermeak honako hauek dira: berme kriminala, berme penala, berme jurisdikzionala eta betearazpenari lotutako bermea⁹. Lehenik, berme kriminalak delituak legez zehaztua egotea galdatzen du (*nullum crimen sine lege*). Bigarrenik, zigor bermeak

⁵ MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General*, Editorial Reppertor, Bartzelona, 2002, 114-116 orl.

⁶ VELARDE RODRÍGUEZ J.A., «El principio de legalidad en el Derecho Penal», *Lex: Revista de la Facultad de Derecho y Ciencia Política de la Universidad Alas Peruanas*, Vol. 12, Iss 13, 2014, 225-242 orl.

⁷ ROSSEAU, J.J., *El Contrato Social o Principios De Derecho Político*, elalph.com, 1999, 83 orl.

⁸ MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General*, cit., 115 orl.

⁹ BUSTOS, J., *Derecho Penal Parte General*, PPU, Bartzelona, 1994, 123 orl.

delituarengatik ezarriko litzatekeen zigorra ere, aldez aurretik legean jasotzea exijitzen du. Hirugarrenik, berme jurisdikzionalari dagokionez, delituaren existentzia eta zigorraren ezarpena epai judizial baten bitartez zehaztea eta bukatzeko, berme betearazleak, zigorraren betearazpena legez zehaztuta egotea eskatzen du¹⁰.

Bestalde, legezkotasun printzipioak, aurretik aipatutako bermeei, “galdakizun hirukoitza” deituriko zenbait berme exijitzen zituen: “*lex praevia*”, “*lex scripta*” eta “*lex stricta*”¹¹:

- “*Lex praevia*” printzipioari erreparatuz, zigor berriak sortzen eta larritzen dituen arauen atzeraeragina debekatzen du. Honen arabera, norbaitek portaera bat egiten duenean zein zigor jasango duen jakin beharra dauka. Izan ere, legezkotasun printzipioaren atal honek segurtasun juridikoan du oinarria. Ordea, zigorra arindu edo ezeztatuko duten arauen aurrean ez dago debekatuta zigor-legeen atzeraeraginik¹².
- “*Lex scripta*” printzipioak, ohitura delitu eta zigorren iturri bezala debekatzen du. Are gehiago, norbait zigortzeko ez da nahikoa edozein arau, arau horrek lege-mailakoa izan behar baitu. Hori horrela izanik, botere betearazleak ezarritako arauak ez dira zigorrak eta delituak zehazteko iturri kontsideratuko, izan ere, delituak eta zigorrak Botere Legegileak soilik zehaztu ditzake¹³.
- “*Lex stricta*” printzipioari dagokionez, zigor-legeari bi oinarri galdatzen dizkio: Alde batetik, zigor legea zehatza izan dadila, eta bestetik erruztatuaren aurkakoa den analogia baztertu dezala (*analogia in malam partem*). Zehaztasunaren mandatuak legeak portaera zigorgarriak eta hauen zigorrak gainerako portaeretatik modu ezberdinduan zehaztea galdatzen du. Izan ere, legeari burla ez egiteko klausula orokorrak eta zehaztugabeak saihestu nahi ziren¹⁴.

c) Legezkotasun printzipioa Espainiar Konstituzioan

¹⁰ COBO DEL ROSAL, M., VIVES T.S., *Derecho Penal Parte General*, tirant lo blanch, Valentzia, 1987, 47-57 orl.

¹¹ ROMEO, C.M., SOLA, E., BOLDOVA, M.A, *Derecho Penal. Parte General. Introducción. Teoría jurídica del delito*, Colmares Editorial, Granada, 2013, 35 orl.

¹² MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General, cit.*, 117 orl.

¹³ BUSTOS, J., *Derecho Penal Parte General, cit.*, 125 orl.

¹⁴ ROMEO, C.M., SOLA, E., BOLDOVA, M.A, *Derecho Penal. Parte General, cit.*, 37-38 orl.

Espainiako legedian zigor-legezketasun printzipioa Zigor Kodean eta Espainiako Konstituzioan daude jasota¹⁵. Espainiako Konstituzioko 25.1 artikuluan horrela dago araututa: “Nadie puede ser condenado o sancionado por acciones u omisiones que en el momento de producirse no constituyan delito, falta o infracción administrativa, según la legislación vigente en aquel momento”. Haatik, lehen aipatu ditugun beste berme kriminaleko printzipioak ez daude hemen jasota, berme kriminala eta delitua zehazten zituzten legeen atzeraeragin eza soilik jasotzen baititu. Bestalde, berme penalarri dagokionez, -delitua egin ondoren zigorra handitzea debeketzen duen printzipioa- hau Espainiako Konstituzioko 9.3 artikuluan dago jasota: “La Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, la irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales, la seguridad jurídica, la responsabilidad y la interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos”.

Berme jurisdikzionalaren zati bat Espainiako Konstituzioko 24.2 artikuluko babes judicial eraginkorraren xedapenean dago araututa: “todos tienen derecho al Juez ordinario predeterminado por la ley, a la defensa y a la asistencia de letrado”. Gainera, Konstituzioko Lehenengo ataleko, bigarren kapituluko, oinarritzko eskubide bat denez, lege organiko batez arautu behar da.

Betearazpen bermeari erreparatuz, Espainiako 25.2 artikulua soilik askatasun-gabetzaileak diren zigorrei egiten die erreferentzia, betearazpen bermea zeharka arautuz.

Espainiako Konstituzioak arauketaz gain, Zigor Kodeak ere legezketasun printzipioaren bermeak jaso ditu¹⁶:

Lehenik, berme kriminala Zigor Kodeko lehenengo artikuluan, dago araututa:” 1. No será castigada ninguna acción ni omisión que no esté prevista como delito por ley anterior a su perpetración.2. Las medidas de seguridad sólo podrán aplicarse cuando concurren los presupuestos establecidos previamente por la Ley”.

Bigarrenik, zigor bermea Zigor Kodeko bigarren artikuluan dago araututa: “No será castigado ningún delito con pena que no se halle prevista por ley anterior a su perpetración. Carecerán,

¹⁵ COBO DEL ROSAL, M., VIVES T.S., *Derecho Penal Parte General, cit.*, 47-57 orl.

¹⁶ MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General, cit.*, 118-125 orl.

igualmente, de efecto retroactivo las leyes que establezcan medidas de seguridad”, Halaber, bigarren lerroaldean, erruztatuarentzat onuragarriak ziren arauen aratzeraregina jasotzen zen. “No obstante, tendrán efecto retroactivo aquellas leyes penales que favorezcan al reo, aunque al entrar en vigor hubiera recaído sentencia firme y el sujeto estuviese cumpliendo condena”.

Hirugarrenik, berme jurisdikzionala Zigor Kodeko 3.1 artikuluan arautzen da: “1. No podrá ejecutarse pena ni medida de seguridad sino en virtud de sentencia firme dictada por el Juez o Tribunal competente, de acuerdo con las leyes procesales”

Bukatzeko, betearazpen bermea Zigor Kodeak 3.2 artikuluan xedatzen da: “Tampoco podrá ejecutarse pena ni medida de seguridad en otra forma que la prescrita por la Ley y reglamentos que la desarrollan, ni con otras circunstancias o accidentes que los expresados en su texto. La ejecución de la pena o de la medida de seguridad se realizará bajo el control de los Jueces y Tribunales competentes”.

d) Legezketasun printzipioa GEEH 7. Artikuluan

Legezketasun printzipioak Europako Hitzarmenean izugarritzko garrantzia dauka, izan ere, Hitzarmenaren kide diren estatuak, salbuespenezko edo gerra egoeretan ere, ezin dute legezketasun printzipioa indargabetu (GEEH 15.2 art.)¹⁷. Horrela arautzen du GEEH. 7.1 Artikuluak: “Nadie podrá ser condenado por una acción o una omisión que, en el momento en que haya sido cometida, no constituya una infracción según el Derecho nacional o internacional. Igualmente no podrá ser impuesta una pena más grave que la aplicable en el momento en que la infracción haya sido cometida”.

GEEA legezketasun printzipioa garatzerakoan *Common Law* eta *Civil Law* kulturen arteko hurbilketa bat egiten saiatu zen¹⁸. Hitzarmenak, batetik, zigorrak eta delituak kontzeptu autonomo kontsideratzen ditu, eta bestetik Estatu-kideen legedia eta jurisprudentzia irisgarria eta aurreikusgarria izatea galdatu du¹⁹.

¹⁷ TAMIETTI, A., «Le Principe de Légalité aux Termes de l’Article 7 de la Convention Européenne des Droits de l’Homme», *EUCRIM: The European Criminal Law Associations Forum*, Vol. 5, 2015, 116-119.

¹⁸ CORRECHER, J., «Principio de legalidad penal: ley formal vs. law in action», *Seminari Interdepartamental, Facultat de Dret, Universitat de Valencia*, 2016, 13-14 orl.

¹⁹ AYALA, A., «El principio de Legalidad Penal y su configuración como derecho subjetivo en el sistema regional Europeo de protección de los Derechos Humanos», *Foro Nueva época*, Iss. 20, 2017, 28-29 orl.

Irisgarritasunari erreparatuz, GEEAk demandatzaileari zigorra ezartzerakoan zigor legeak nahiko irisgarriak direla egiaztatu behar du²⁰. Horretarako, “Kokkinakis c. Grezia”²¹ epaiaren arabera arauen publizitatea beharrezkoa da.

Bestalde, aurreikuspenak galdatzen duena honako hau da: Edozein subjektuk zein egitek edo ez-egitek eraman diezaioketen delitu bat egin eta zigor bat jasotzera jakin beharra dauka, batetik, legediaren bitartez, eta bestetik, beharrezkoa bada, Auzitegien interpretazioaren laguntzarekin²². Horrez gain, zigor legeek eta jurisprudenziak araututakoa ulertzeko, beharrezkoa bada, Zuzenbidean aditua den norbaiten laguntza jaso beharko dute (“Jorgic c. Alemania”²³).

Oro har, bi printzipio hauek beraien artean korrelazionatuta daude, izan ere, irisgarritasunik ez badago ezin daiteke debekatuta dagoen portaera bat aurreikusi. Gainera, irisgarritasuna eta aurreikuspena lege idatzira soilik ez daude itxiak, beharrezkoa bada jurisprudenziaren interpretaziora ere hedatzen dira²⁴.

Horrez gain, GEEAk legezkotasun printzipioaren garapen propioan aurrerakuntza asko egin zituen, besteak beste, *proreo* diren arauen atzeraeragina jasotzea²⁵. Baina, zigorraren betearazpena ez zuen kontzeptu autonomo gisa legezkotasun printzipioan barnebiltzen²⁶. Horren adibide zen, “Hogben c. Erresuma Batua” kasuko Giza Eskubideen Europar Batzordeko erabakia²⁷. Kasu horretan, Britainiar hiritar bat, bitxi dendako dendaria hiltzogatik bizi arteko espetxe-zigorrera kondenatu zuten.

²⁰ THE DIRECTORATE OF THE JURISCONSULT OF ECHR, *Guide on Article 7 of the European Convention on Human Rights*, European Court Of Human Rights, 2020, 12 orl.

²¹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko *Kokkinakis c. Grezia* 14307/88 epaia § 40, 1993ko Maiatzaren 25ekoa: “La Cour a déjà constaté que le libellé de bien des lois ne présente pas une précision absolue. Beaucoup d’entre elles, en raison de la nécessité d’éviter une rigidité excessive et de s’adapter aux changements de situation, se servent par la force des choses de formules plus ou moins floues”.

²² THE DIRECTORATE OF THE JURISCONSULT OF ECHR, *Guide on Article 7 of the European Convention on Human Rights*, European Court Of Human Rights, 2020, 12-16 orl.

²³ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko *Jorgic c. Alemania* 74613/01 epaia, 2007ko uztailaren 12koa.

²⁴ THE DIRECTORATE OF THE JURISCONSULT OF ECHR, *Guide on Article 7 of the European Convention on Human Rights*, European Court Of Human Rights, 2020, 12-16 orl.

²⁵ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko *Scoppola c. Italia* 10249/03 epaia, 2009ko irailak 17koa.

²⁶ LANDA, J., «Ejecución de penas y principio de legalidad ante el TEDH», *InDret Revista para el Análisis del Derecho*, Vol. 2. 2012.

²⁷ Giza Eskubideen Europar Batzordeko *Hogben c. Erresuma Batua* 11653/85 erabakia, 1996ko Martxoak 3koa.

1982an barneratua modulu itxitik modulu irekira aldatu zuten, eta ondorioz, honek frogatu zuen barneratuak arriskutsu izateari utzi ziola. Jarraian, espetxe zentroak demandatzaileak bertan urtebete igaro ondoren, 1985ean baldintzapeko askatasuna emango ziola adierazi zion. Baina, presio politikoak medio, 1983an barneratua modulu irekitik modulu itxira pasa zuten, nahiz eta bere portaera ona izan.

Honen aurrean, barneratuak Giza Eskubideen Europako Batzordera (1953tik 1998ra)²⁸ jo zuen eta bertan erabaki zuten zigorra bere horretan bizi arteko espetxe-zigorra zenez, zigorraren autonomia ez zela urratu. Baina, LANDAK egindako azterketari jarraituz, nik ere uste dut GEEAK bere jurisprudentzia *Kafkaris c Zipreren* aurkako epaian ezarri zuela²⁹.

e) *Kafkaris c. Zipre*³⁰

LANDAREN arabera³¹, GEEAK zigorraren betearazpenaren inguruan ordurarte egindako ibilbide jurisprudentziala "*Kafkaris c Zipreren*" epaiarekin aldatu zen. Gaiaren garrantzia zela-eta, Magistratuek kasua Sala Handira igortzea erabaki zuten, eta bertan epaiaren inguruan lortutako gehiengoa handia izan zen.

Kasu honetan, demandatzaileak arrazoitzen zuten espetxera sartzerakoan bertatik 20 urtera irtengo zela azaltzen zuten dokumentu bat eman zitzaiola, izan ere, Zipreko legediaren arabera bizi arteko espetxe zigorra 20 urteko espetxe zigorra baliokideak ziren. Haatik, Zipreko Konstituzio Auzitegiak handik urte batzuetara bi zigorren arteko baliokidetza sortzen zuten arauak konstituzio-kontrakoak deklaratu zituen, eta horrekin batera dokumentua bera baita ere.

Sala Handiak ebazitako epaiak GEEH 7. Artikulua urratuta zela adierazi zuen, alabaina, urraketa hori ez zuen zigor betearazpen arauen atzeraeraginkortasun ezean oinarritu. Horretarako argudiaketa *legearen kalitate faltan* oinarritu zuen. Izan ere, Auzitegiaren aburuz, zigorra kontzeptu autonomo bat zen, eta zigorraren betearazpena eta zigorra bi kontzeptu ezberdin ziren.

²⁸ REFWORLD ERAKUNDEA, *Council of Europe: European Commission on Human Rights*: "Although the European Commission on Human Rights became obsolete in 1998 with the restructuring of the European Court of Human Rights, it held an important role in assisting the European Court of Human Rights from 1953 to 1998".

²⁹ LANDA, J., «Ejecución de penas», *cit.*

³⁰ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko, *Kafkaris c. Zipre* 21906/04 epaia, 2008ko Otsailaren 12koa.

³¹ LANDA, J., «Ejecución de penas», *cit.*

Hala ere, Magistratuek onartu zuten zigorraren eta zigorraren betearazpenaren arteko bereiztasuna ez zegoela argi³².

GEEAk demandatzaileak delitua gauzatzerakoan bizi arteko espetxe-zigorraren eta zigorraren betearazpenaren arteko bereizketa egiteko arauak nahikoa zehaztasun ez zutela adierazi zuten³³. Beraz, legezkoetasun printzipioa urratu zela erabaki zuten *legean kalitate falta* zegoelako.

LANDAK *Kafkaris c. Zipre* epaiarekin ondorioztatu zuen zigorraren definizioan eragin material zuzena zuten zigor betearazpen arazoak GEEH 7. Artikulura hurbildu nahi izan zituela³⁴.

Nire aburuz, nahiz eta epai honetan argudiaketa korapilatsua izan, gauza bat argi geratu zen: Zigorraren eta zigorraren betearazpenaren arteko bereizketa ez zegoela argi. Hemendik abiatuta, honako hutsune hauek sortu ziren GEEAko legedian: Zigorraren eta zigorraren betearazpenaren arteko bereizketa nola gauzatu zitekeen? “kalitate falta”-n oinarrituta, edo beste modu batera? Non zegoen bien arteko muga?

³² Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko, *Kafkaris c. Zipre* 21906/04 epaia §142, 2008ko Otsailaren 12a:” lorsque la nature et le but d’une mesure concernent la remise d’une peine ou un changement dans le système de libération conditionnelle, cette mesure ne fait pas partie intégrante de la « peine » au sens de l’article 7 (voir, entre autres, Hogben, décision précitée, Hosein c. Royaume-Uni, n o 26293/95, décision de la Commission du 28 février 1996, non publiée, Grava, précité, § 51, et Uttley, décision précitée). Cependant, la distinction entre les deux n’est peut-être pas toujours nette en pratique”.

³³ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko, *Kafkaris c. Zipre* 21906/04 epaia §150, 2008ko Otsailaren 12a:“La Cour conclut qu’à l’époque où le requérant a commis l’infraction, le droit chypriote pertinent pris dans son ensemble n’était pas formulé avec **suffisamment de précision** pour permettre au requérant de discerner, à un degré raisonnable dans les circonstances, fût-ce en s’entourant au besoin de conseils éclairés, la portée de la peine de réclusion à perpétuité et les modalités de son exécution. Il y a donc eu violation de l’article 7 de la Convention à cet égard”.

³⁴ LANDA, J., «Ejecución de penas», *cit.*

2.2. ZIGORREN METATZEA

a) Jatorria³⁵

Lehenik, zigorren metatze materiala 1848ko Zigor Kodeko 76. artikuluan jaso zen³⁶, alabaina Zigor Kode hartan gehieneko mugarik ez zen zehaztu. Honen ondoren, 1850eko Zigor Kodeak ere ez zuen gehieneko mugarik jaso; aitzitik, zigorrak oso gogorrak zirenean indultua jasotzeko aukera arautu zuen. Jarraian, 1870eko Zigor Kodeak 89. artikuluan, lehen aldiz, errudunari ezarri zitzaizkion zigorretatik astunenak zirauen denbora baino hiru halakoa ezingo zituela gainditu arautu zuen eta salbuespen gisa 40 urteko gehieneko muga gainditzean zigorrak azkendutzat emango zirela ezarri zuen³⁷. Horrela jaso ziren lehen aldiz, Espainiako Zigor Kodean, zigorraren gehieneko mugak.

Hurrengo garapena 1928ko Zigor Kodeko 163. artikuluko lehenengo lerroaldean gauzatu zen, honen arabera, bi kasutan azkendu zitekeen zigorraren ezarpena: Batetik, 40 urtetik aurrerako zigorretan, bestetik zigor larrienaren hirukoitzaren gainditzen zenean³⁸.

1932ko Zigor Kodeak egin zuen aldaketa zigorraren gehieneko muga 40 urtetan ezarri behar 30 urtetan zehaztea izan zen. “En ningún caso podrá dicho máximo exceder de treinta años”³⁹.

1944ko Zigor Kodeak⁴⁰ zigorren metatzeari buruzko arauak eta gehieneko mugak bere horretan mantendu zituen; alegia, aurreko zigor kodeak arautzen zituen bezala (nahiz eta zigorren metatze araei buruzko idazkera aldatu, arauen oinarriak 1848. Zigor Kodeaz geroztik ez ziren aldatu). 1944ko Zigor Kodeko 70. artikuluko bigarren lerroaldeak horrela arautu zuen: “2ª: Sin embargo

³⁵ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, lss.1698-739X, 2014, 6-9 orl.

³⁶ 1848ko Zigor Kodeko 76. Artikulua: “Al culpable de dos o más delitos o faltas se impondrán todas las penas correspondientes a las diversas infracciones. El sentenciado cumplirá todas sus condenas siendo posible. Cuando no lo fuere, las sufrirá en orden sucesivo, principiando por las más graves, o sea, las más altas en la escala general, excepto las de extrañamiento confinamiento y destierro, las cuales se ejecutarán después de haber cumplido cualquiera otra pena de las comprendidas en las escales graduales números 1ª y 2ª”.

³⁷ 1870eko Zigor Kodeko 89. Artikuluko bigarren araua: “el máximo de duración de condena del culpable no podrá exceder del triple del tiempo porque se le impusiere la más grave de las penas en que haya incurrido, dejando de imponérsele las que proceda desde que las ya impuestas cubrieren el máximo del tiempo predicho”, gehituz “en ningún caso podrá dicho máximo exceder de 40 años”.

³⁸ 1928ko Zigor Kodeko 163. Artikulua.

³⁹ 1932 Zigor Kodeko 74.2 artikulua.

⁴⁰ 1944ko Zigor Kodea, 1944ko Abenduaren 23koa.

de lo dispuesto en la regla anterior (aurreko leerroaldean zigorrak batera bete ezin zitezkenean jarraitu behar zituzten arauak xedatu zituen), el máximo de cumplimiento de la condena del culpable no podrá exceder del triplo de tiempo por que se le impusiere la más grave de las penas en que haya incurrido, dejando de extinguirlas que procedan desde que las ya impuestas cubrieren el máximo de tiempo predicho, que no podrá exceder de treinta años”

Aldaketa apirilak 8ko 3/1967 lege erreformarekin⁴¹ etorri zen, izan ere, honek Zigor Kodea eta Prozedimendu Kriminalako Legea erabat aldatu zituen. Hitzaurreak horrela adierazi zuen: “la aplicación restrictiva que viene haciéndose de la limitación que, en cuanto al cumplimiento de las penas, establece la regla segunda del artículo setenta del Código Penal, por cuanto se reduce a los casos en que las múltiples infracciones que se incriminan a un mismo agente se hallan relacionadas entre sí por una cierta conexión y se tramiten conjuntamente en el mismo proceso (...). Hain zuzen ere, bere helburua honako hau zen “lo que, en definitiva, es un beneficio para el reo dependa muchas veces del azar determinado por el enjuiciamiento o no en un solo proceso y conduzca frecuentemente a conclusiones injustas”.

Ondorioz, arestian aipatutako, arazoak ekiditeko 70. artikuluan paragrafo berri bat gehitu zen. Honen xedea prozesu ezberdinetan ezarritako zigorrak batera pilatzea zen, eta hau aurrera eramateko, Prozedimendu Kriminalako Legeak ondorengoa arautu zuen: “cuya competencia se atribuye al Tribunal que hubiera dictado la última sentencia contra el reo, el cual, con los antecedentes precisos, que reclamará de los demás Tribunales sentenciadores y del Registro Central de Penados y Rebeldes, **fijará el máximo de cumplimiento de condena**.(...)”.

1944ko Zigor Kodeari 3/1967 Legearen bitartez egin zizkieten aldaketek Zigor Kodeko 70. artikulua horrela utzi zuten idatzita: “Cuando todas o algunas de las penas correspondientes a las diversas infracciones no pudieran ser cumplidas simultáneamente por el condenado se observarán, respecto a ellas, las reglas siguientes: Primera.-En la imposición de las penas se seguirá el orden de su respectiva gravedad para su cumplimiento sucesivo por el condenado en cuanto sea posible, por haber obtenido indulto de las primeramente impuestas o por haberlas ya cumplido.(...) Segunda.-No obstante lo dispuesto en la regla anterior, el máximo de cumplimiento de la condena del culpable no podrá exceder del. triplo del tiempo por que se le

⁴¹ 3/1967ko Zigor Kodeari eta PKL egindako lege erreforma, 1967ko apirilaren 8koa.

impusiere la más grave de las penas en que haya incurrido dejando de extinguir las que procedan desde que las ya impuestas cubrieren el máximo de tiempo predicho, que no podrá exceder de 30 años. La limitación se aplicará aunque las penas se hubieran impuesto en distintos procesos **si los hechos, por su conexión, pudieren haberse enjuiciado en un solo**". Aldaketa honek kritika gogorak jaso zituen, esaterako, ZABALAak adierazi zuen 70. artikulua izaera murrizgarria zuela, izan ere, zigorrak beraien arteak loturarik ez bazuten, ezingo ziren metatu⁴².

Ondoren etorri ziren Zigor Kodeak 1973koa eta 1995ekoa izan ziren. Oro har, Parot Doktrina 1973ko Zigor Kodaren bitartez epaituak izan ziren barneratuei aplikatu zen. Alabaina, 1995eko Zigor Kodea ere garrantzitsua da lege laboragarriagoa zein den erabakitzeko: 1973koa edo 1995ekoa. Horretarako, Zigor Kode hauek, hurrengo atalean landuko dira.

PKLri egindako erreformak delituen arteko loturari buruzko arauketa ere aldatu zuen, eta erreforma honekin zigorren metatzeen intzidentea PKLko 988. Artikuluan arautu zuen: "Cuando el culpable de varias infracciones penales haya sido condenado en distintos procesos por hechos que pudieron ser objeto de uno solo (...) el Juez o Tribunal que hubiera dictado la última sentencia, de oficio a instancia del Ministerio Fiscal o del condenado, procederá a fijar el límite del cumplimiento de las penas impuestas conforme a la regla segunda del artículo setenta del Código Penal (...)".

Gaur egungo PKLko 988. Artikulua aurreko Prozedimendu Kriminalaren Legeko idazketa berdina izaten jarraitzen du, hirugarren paragrafoa salbu.

b) Azalpena⁴³

Delitu pilaketak hainbat arau-haustez osatuta dauden egoerak dira. Ordenamendu batzuk delitu pilaketari erantzun bakar bat ematen diete, eta beste batzuk, aldiz, erantzun bat baino gehiago. Erantzun bat baino gehiago ematen duten ordenamenduek delituak zigorgarria den portaera bat edo zigorgarria den portaera bat baino gehiagoz osatuta dauden portaeraren artean ezberdintzen

⁴² ZABALA, C., «La "nueva" refundición o acumulación de condenas: el olvido lamentable del principio de legalidad», *Cuadernos de Política Criminal*, Iss. 0210-4059, 2006, 144 orl.

⁴³ ROMEO, C.M., SOLA, E., BOLDOVA, M.A, *Derecho Penal. Parte General*, cit.

dute. Espainiako ordenamendu juridikokoak delitu pilaketak: pilaketa idealaren, pilaketa medialaren eta pilaketa errearen artean bereizten ditu⁴⁴.

Oro har, doktrinak delitu pilaketen zigorrak zehazteko honako hiru eredu hauek sailkatzen ditu: lehenik metaketa materiala, bigarrenik barne hartzekoa edo hirugarrenik metaketa juridikoa⁴⁵.

- Zigorraren metaketa materialean, hitzak dioen moduan, zigor guztiak materialki metatzean datza.
- Zigorrak barne hartzekoari erreparatuz, zigor larrienak zigor arinenak barne hartzean datza, eta guztiaren gaintzespena barne hartzen du.
- Zigorren metaketa juridikoa, aurreko bi metaketen erdibide bat da. Izan ere, zigor larriena izango litzatekeena baina larriagoa da, baina, ez da zigor guztiak materialki batuta bezain larria⁴⁶.

Delitu pilaketa ideala 1973ko Zigor Kodeko 71. eta 1995eko Zigor Kodeko 77. artikuluan dago araututa. Nire aburuz, 1995eko Zigor Kodeko idazketan, 1973ko Zigor Kodearekiko aldaketa batzuk egon ziren, baina edukiak bera jarraitzen du izaten: Portaera bakar batek arau-hauste bat baino gehiago eragitea, eta Zigor Kodeak honi ematen dion erantzuna arau-hauste astunenari ezarritako zigorra goiko erdian ezartzean datza. Baina arau-haustea banaturik zigortuz gero ezarri beharreko zigorren batura ezingo du gaintitu⁴⁷.

Delitu pilaketa mediala delitu bat beste delitu bat gauzatzeko bitarteko denean sortzen den egoera juridikoa da⁴⁸. Delitu pilaketa mota hauek JUBERTek⁴⁹ eta beste zenbait egilek delitu pilaketa errearen azpikategoria gisa barne biltzen dute.

Lan honi dagokionez, Parot Doktrina aplikatu zitzaizen barneratuen zigorrak delitu pilaketa errearen arauen arabera zehazten ziren. Izan ere, presoek kondena zigorgarriak ziren hainbat

⁴⁴ DE VICENTE MARTÍNEZ, R., DÍAZ, M., MARTÍNEZ, R., *La aplicación práctica del incidente de acumulación de condenas*, S.A. BOSCH, Bartzelona, 2017.

⁴⁵ MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General*, cit., 680 orl.

⁴⁶ MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General*, cit., 680. orl.

⁴⁷ QUINTERO, G., *Derecho Penal Parte General*, Editorial Graficas Signo, Bartzelona, 1986, 632 orl.

⁴⁸ GUINARTE, G., «El concurso "medial" de delitos», *Estudios penales y criminológicos*, lss. 1137-7550, 1998-1989, 153-206 orl.

⁴⁹ JOSHI, U. (1992), «Unidad de hecho y concurso medial de delitos» *Anuario de derecho penal y ciencias penales*, lss. 0210-3001, 1992, 633 orl.

portaerek osatzen zuten. Delituei zegokienez, delitu berdinak (adb. bost hilketa) edo ezberdinak izan zitezkeen (adb. erailketa eta lapurreta)⁵⁰.

Delitu pilaketa erreala 1973ko Zigor Kodeak 69. eta 70. artikuluetan arautzen zuen⁵¹, eta 1995ko Zigor Kodeak, 73. 75. eta 76. artikuluetan⁵². Gaur egungo eta 1973ko Zigor Kodearen arteko ezberdintasun nagusia zigorraren metatze arauak ezartzen dituzten gehieneko mugak dira: 1973ko Zigor Kodeak salbuespen gisa 30 urteko zigorraren gehieneko muga ezartzen zuen, eta 1995ekoak, 7/2003 lege erreformaren ondorioz, 20, 25, 30, eta 40 urte bitartekoak, delitu kopuruaren eta larritasuna kontuan hartuta.

Lehenik, bi Zigor Kodeek adierazten dute delitu bat baino gehiagoren erantzulearen zigorraren izaera eta ondoreak kontuan hartuta horiek aldi berean bete badaitezke, batera bete beharko direla (69 eta 73. Artikuluetan hurrenez hurren). Bigarrenik, zigorrak batera bete ezin direnean, zigorraren astuntasuna jarraituz bete behar dira (70 eta 75. artikuluetan hurrenez hurren). Hala ere, Espainiako Ordenamenduak zigorraren metaketa materialari zenbait muga ezartzen dizkio, izan ere, zigorrak materialki betetzeak bizi arteko espetxe-zigorrak sor ditzake eta.

Hirugarrenik, 1973ko Zigor Kodeko 70.2 artikuluan honako muga hauek jasotzen zituen: “el máximo de cumplimiento de la condena del culpable no podrá exceder del tripo del tiempo por que se le impusiere la más grave de las penas en que haya incurrido, dejando de extinguir las que procedan desde que las ya impuestas cubrieren el máximo de tiempo predicho, que no podrá exceder de treinta años.”. 1995ko Zigor Kodeak, aldiz, 76. artikuluan (7/2003 erreforma barne ez hartuz) honako hauek jasotzen ditu: “el máximo de cumplimiento efectivo de la condena del culpable no podrá exceder del triple del tiempo por el que se le imponga la más grave de las penas en que haya incurrido, declarando extinguidas las que procedan desde que las ya impuestas cubran dicho máximo, que no podrá exceder de veinte años. Excepcionalmente, este límite máximo será: a) De veinticinco años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la Ley con pena de prisión de hasta veinte años. b) De treinta años, cuando el sujeto haya sido condenado por dos o más delitos y alguno de ellos esté castigado por la Ley con pena de prisión superior a veinte años.”

⁵⁰ QUINTERO, G., *Derecho Penal Parte General, cit.*, 632 orl.

⁵¹ POLAINO, M., *Derecho penal, parte general*, Editorial Bosch, Bartzelona, 2001.

⁵² ORTEGA, R., «La Acumulación Jurídica de Penas: Análisis de la STS 222/2014 de 7 de marzo de 2014», *Trabajos Fin de Máster UVa*, 2017.

Azken puntu honi erreparatuz, bi Zigor Kodeek gauza bera arautzen dute: kondenaren gehieneko iraupenak ezin duela gainditu errudunari ezarri zaizkion zigorretatik astunenak dirauen denbora baino hiru halakoa. Baina, hurrengo lerroaldeak honako muga hau ezartzen dio aurrekoari: 1973ko Zigor Kodeak salbuespen gisa kondenak zigorretatik astunenak zirauen denbora baino hiru halakoa gainditzean 30 urteko zigorraren gehieneko muga ezartzen zuen, eta 1995ekoak, 7/2003 lege erreformaren ondorioz, 20, 25, 30, eta 40 urte bitartekoak, delitu kopuruen eta larritasuna kontuan hartuta.

Bukatzeko bi artikuluen bukaeran esaldi bera jasotzen da:” La limitación se aplicará aunque las penas se hubieran impuesto en distintos procesos si los hechos, por su conexión, pudieran haberse enjuiciado en uno solo”. Alegia, prozesu ezberdinetan ezarritako zigorrak, ahal izanez gero, batera prozesatuko direla. Zentzu horretan, garrantzitsua da PKLko 988. artikulua.

c) Prozedura Kriminalaren Legeko 988. artikulua

Prozedura Kriminalaren Legeko 988. artikuluko hirugarren lerroaldeak horrela arautzen du: “Cuando el culpable de varias infracciones penales haya sido condenado en distintos procesos por hechos que pudieron ser objeto de uno solo (...) el Juez o Tribunal que hubiera dictado la última sentencia, de oficio a instancia del Ministerio Fiscal o del condenado, procederá a fijar el límite del cumplimiento de las penas impuestas conforme a la regla segunda del artículo setenta del Código Penal (...)”.

Xedapen honen idazketa aztertuz, ondorengo ondorio hauek atera daitezke⁵³:

- Lehenik, Zenbait arau-hauste penalen ondorioz erruduna prozesu ezberdinetan kondenatua izan denean eta egitate horiek prozesu bakar baten objektu izan daitezkeenean, ezarritako zigorraren gehieneko betearazpen-muga egitateak gauzatu direneko Zigor Kodearen mugen arabera zehaztuko direla, alegia; 1973ko Zigor Kodeko 70.2 eta 1995eko Zigor Kodeko 76. artikuluen arabera.

⁵³ VARONA, A., «El incidente de acumulación jurídica de penas: propuesta de "lege ferenda"», *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, lss. 1888-3443, 2019.

- Bigarrenik, barneratua azkenik zigortuko duen epaitegia arduratuko da prozesu ezberdinetan ezarritako zigorrak prozesu bakar baten objektu izateaz, ofizioz nahiz Fiskaltzak edo kondenatuak hala eskatuta.
- Hirugarrenik, arestian aipatutako prozesuen arteko lotura, PKLko 17. artikuluko lotura irizpide materialean arabera egingo da. Artikulu honi jarraituz, lehenengo auzia hasi baino lehen egindako delitu guztiak elkarrekin lotuta dauden delitutzat hartuko dira.

Gauzak horrela, Espainiar ordenamenduak zigorrak metatzeko edukitako konexio irizpidea **flexiblea eta zabala** da, behin betiko epaiaren aurretik dauden prozesu guztiak metatzen baititu⁵⁴.

⁵⁴ Auzitegi Goreneko (bigarren gelako) 197/2006 epaia, 2006ko Otsailaren 28koa.

2.3. LANAREN BIDEZ ZIGORRA ORDAINTEA

a) Jatorria

Gerra Zibilean eman zitzaion hasiera lanaren bidez zigorra ordaintzeari, 1937ko Maiatzaren 29ko Dekretuaren bitartez. Erabaki hau alderdi errepublikarreko presoi zuzenduta zegoen eta bere kontsolidazioa 1944ko Zigor Kodean eman zen⁵⁵.

RÍOS eta SÁEZ irakasleen iritziz, lanaren bidez zigorra ordaintzeak bi oinarri zituen: Ordaintzekoa, eta zuzentzekoa⁵⁶. Ordaintzekoari zegokionez, errepublikarrek gerra zibilean sortutako kaltea konpondu egin behar zutela defendatzen zen, eta zuzentzekoari erreparatuz, lanaren bitartez berreziketa egitea frankismoaren eta eliza katolikoaren ideologiaren eraginaren ondorio izan zen⁵⁷.

Arau honek zituen helburuak, besteak beste, gaindituta zeuden kartzela frankistak hustu eta 1890eko Justizia Militarreko Kodean oinarrituta ezarritako zigor gogorak arintzea zen. Zigorra lanaren bidez ordaintzearen teoriaren oinarriak PÉREZ DE PULGARrek ezarri zituen eta MÁXIMO CUERVO izan zen proiektua praktikara eraman zuen pertsona⁵⁸.

Diktaduraren beherakadarekin Konstituzioa iritsi zen, eta Espainiako ordenamendu juridikoan aldaketa garrantzitsuak egon ziren. Aldaketa horien joerak erakunde honek indarra galtzea eragin zuen. Hots, Konstituzioa ezarri ondoren, 1983ko Zigor Kodearen aurreproiektuan espetxe-onura honi buruz egon ziren tira birak: "Pero entiende que la redención de penas por el trabajo, que instauró el Código de 1944 sobre la base del Decreto de 28 de mayo de 1937 aplicable a los presos políticos procedentes de la guerra civil, es desde el punto de vista político-criminal contraproducente y que, por tanto, debe desaparecer"⁵⁹. Baina azkenean Zigor Kode berria ez

⁵⁵ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *cit.*

⁵⁶ CUERVO, M.M., *Fundamento del Nuevo Sistema Penitenciario Español*, Conferencia Pronunciada en la apertura de la Escuela de Estudios Penitenciarios en la Universidad de Madrid, 1940: "La pena es así «garantía» «defensa» y «reparación» del orden jurídico; «expiación» en cuanto al culpable; «corrección» en cuanto ella sea posible; «escarmiento» o «intimidación» en cuanto a los demás".

⁵⁷ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *cit.*, 10 orl.

⁵⁸ RUIZ, J.D., «El "derecho al trabajo" en las cárceles franquistas», *Derechos y libertades Revista del Instituto Bartolomé de las Casas*, Iss. 1133-093, 2016, 265-305 orl.

⁵⁹ Zigor Kode Berriaren lege aurreproiektua, Estatuko Aldizkari Ofiziala 108-1 zenbakia, 1980ko urtarrilaren 17a.

zen aurrera atera eta, 1973ko Zigor Kodeari egindako 8/1983ko erreforman, lanaren bidez zigorra ordaintzea, aurrezaintza bereziko espetxe-onura bezala jaso zen.

1995eko Zigor Koderaren arte itxaron behar da lanaren bidez zigorra ordaintzeko erakundea indargabetzeko. Horrela, 10/1995 Zigor Kodeko xedapen iragankorrek arautu zuten, Zigor Kode berria indarrean sartzean (1996ko Maiatzaren 24ean), aurretik gauzatutako egitateei soilik aplikatuko zitzaizela espetxe-onura hau: “Sólo serán de aplicación a todos los condenados conforme al Código derogado y no podrán gozar de ellas aquellos a quienes se les apliquen las disposiciones del nuevo Código”⁶⁰

b) Azalpena

Instituzioa hau aitzinsolasik gabe, 1981eko Espetxeen Erregelamenduko 202. artikuluan horrela kontsideratu zuen: “(...) Se entenderá por beneficios penitenciarios aquellas medidas que permiten la reducción de la duración de la condena impuesta en sentencia firme o de la del tiempo efectivo de internamiento...”⁶¹. Erregelamendua horrela, lanaren bidez zigorra ordaintzeak kondena murrizten zuenez espetxe-onura bat zela ulertzen zen⁶². Baina, zehazki 1973ko Zigor Kodeko 100. artikuluan horrela zegoen araututa: “Podrán redimir su pena por el trabajo, desde que sea firme la sentencia respectiva, los reclusos condenados a penas de reclusión, presidio y prisión. Al recluso trabajador se abonará, para el cumplimiento de la pena impuesta, un día por cada dos de trabajo, y el tiempo así redimido se le contará también para la concesión de la libertad condicional”⁶³.

Hala ere, arau orokorrak salbuespen bat zuen, 100. artikuluko bigarren letrorain araututa: “No podrán redimir pena por el trabajo: 1.º Quienes quebrantaren la condena o intentaren quebrantarla, aunque no lograsen su propósito. 2.º Los que reiteradamente observaren mala conducta durante el cumplimiento de la condena.”⁶⁴. Gauzak horrela, zigorraren betearazpena urratu zutenei, urratzen saiatzen zirenei edo zigorra betetzen ari zirenean portaera txarra eduki zutenei ez zitzaizkien aplikatzen espetxe-onura hau.

⁶⁰ 10/1995 Zigor Kodeko Lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrak.

⁶¹ 1201/1981 Errege Dekretua, 1981eko maiatzaren 8ko Espetxeen Erregelamenduko 202. artikulua.

⁶² GISELLA D., *Los Beneficios penitenciarios como instrumentos de acercamiento a la libertad. Análisis desde la legislación Iberoamericana*. Tesis Doctoral en la Universidad de Alcalá. 2014.

⁶³ 3096/1997ko Zigor Kodeko 100.1 artikulua.

⁶⁴ 3096/1973ko Zigor Kodeko 100.2 artikulua.

SANZen aburuz, erakunde honek bat egiten zuen Espainiako Konstituzioko 25.2 artikuluan jasotzen zen gizarteratze xedearekin. Horrez gain, Alcalako Unibertsitateko irakasleak erakunde honen joera aldaketaren inguruan ondorengo adierazi zuen: “salvagrada de la prevención especial ante la contundencia preventivo-general del derogado Código franquista”⁶⁵.

c) Zigorra lanaren bidez ordaintzeko modalitateak

Zigorra lanaren bidez ordaintzea bi modutan gauzatu zitekeen: ohiko modalitatean edo ez-ohiko modalitatean⁶⁶.

Ohiko modalitatea behin betiko espetxealdian zeuden barneratuei emango zitzaien, honako funtzionamendu honen arabera: Lan egiten zituzten bi eguneko, zigorreko egun bat ordainduko zuten (2x1). Horrela zegoen araututa 1956ko Espetxe Zerbitzuetako erregelamenduko 66. artikuluan⁶⁷: “Al recluso trabajador se abonará, para el cumplimiento de la pena impuesta, un día por cada dos de trabajo”. Halaber, zigorra lanaren bidez ordaintzea eta baldintzapeko askatasuna bateragarriak ziren, jurisprudenziaren arabera⁶⁸.

Prozedimendua jarraituz, tratamendu-batzarrak erabakiko zuen barneratuek espetxe-onura honetan onetsita izateko aukera edukiko zuen. Ondoren, espetxe-zaintzako epaileari zegokion kondena murrizteko proposamenen inguruan erabaki bat hartzea⁶⁹. Hala ere, arestian aipatutako salbuespenak salbu, barneratu guztiei aplikatzen zitzaien⁷⁰, eta praktikan zigorra lanaren bidez ordaintzea eskatzen zutenentzako nahikoa lanik ez zegoenez, zuzenean patiora jaistearekin ere espetxe-onura hau aplikatzen zen⁷¹.

⁶⁵ SANZ, E., *Regresar antes: los beneficios penitenciarios*. Dirección General de Instituciones Penitenciarias. Ministerio del Interior. Madril, 2007, 137. orl.

⁶⁶ GISELLA D., *Los Beneficios penitenciarios*, cit.

⁶⁷ Dekretu bidez onartutako Espetxe Zerbitzuetako Erregelamenduko 66. artikulua, 1956ko otsailaren 2koa.

⁶⁸ GISELLA D., *Los Beneficios penitenciarios*, cit.

⁶⁹ 1/1979 Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 76. Artikulua, 1979ko irailaren 26koa: “El Juez de Vigilancia tendrá atribuciones para hacer cumplir la pena impuesta, resolver los recursos referentes a las modificaciones que pueda experimentar con arreglo a lo prescrito en las Leyes y Reglamentos, salvaguardar los derechos de los internos y corregir los abusos y desviaciones que en el cumplimiento de los preceptos del régimen penitenciario puedan producirse. c) Aprobar las propuestas que formulen los establecimientos sobre beneficios penitenciarios que puedan suponer acortamiento de la condena”.

⁷⁰ ARRÍBAS, E., «Otra vez a vueltas con la redención de penas por el trabajo». *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*, Iss. 0211-2744, 2005.

⁷¹ OSTOLAZA, O., «Elkarrizketa», zigor zuzenbidean aditua eta 373 Abokatuk kooperatibako kide, 2020ko maiatzaren 3an.

Bestalde, ez-ohiko modalitatea behin-behineko espetxealdian zeuden barneratuei zegokien, alegia; behin-betiko epaiaren zain zeudenei. Hala ere, arestian aipatutako funtzionamendua ez zitzaion aplikagarri ez-ohiko modalitateari, izan ere, lan egiten zituzten egun bakoitzeko zigorroko egun bat ordainduko zuten (1x1), aitzitik urte bateko 175 eguneko gehieneko mugarekin⁷².

⁷² Dekretu bidez onartutako Espetxe Zerbitzuetako Erregelamenduko 71. artikulua, 1956ko otsailaren 2koa.

2.4. 1995EKO ZIGOR KODEA ETA TESTUINGURUA

Espainiako demokraziako lehenengo Zigor Kodea 15 urteko atzerapenarekin onartu zen, eta testuingururi zegokionez, Espainia garai hartan krisi ekonomiko eta politiko batean murgilduta zegoen. Garai hartako Justizia eta Barne Ministroa izan zen Belloch jaunak bultzatu zuen 1995eko Zigor Kode berria, xede “kultura eta zibilizazio aldaketa bat” zuelarik⁷³.

Haatik, jurista aurrerakoi askok erreforma hau aurretik azaldutako krisi ekonomiko eta politikoaren isla kontsideratu zuten, erreformak kriminalizaziorako apustua egiten baitzuen. Kritikak ondorengo arrazoietan oinarritu zituzten⁷⁴:

- 1973ko Zigor Kodea jarraituz, 30 urteko espetxe zigorrean espetxe-onurak aplikatuz gero 20 urteko espetxe zigor bihurtu zitezkeen eta baldintzapeko askatasunari esker 15 urteko iraupen “erreal” eduki zezaketen, alegia; lanaren bidez zigorra ordaintzeak eta baldintzapeko askatasunak dezente murrizten zuten espetxe-zigorraren iraupen eraginkorra. Aldiz, erreforma berriak lanaren bidez zigorra ordaintzearen erakundea indargabetu egin zuen eta ez zuen aurrekoaren adinako beherapenik zituen espetxe-onurarik ezarri.
- Askatasuna murrizten zuten zigorrak saihesteko ezarri ziren formula substantiboak (Hots, askatasun-gabetzaileak ordezteak) marjinalak izan ziren, hau da; espetxeak sistemaren ardatz eta goi-gailur izaten jarraitu zuen.
- Zigor laburrak ez ziren desagertu: Asteburuko atzipenaldiak espetxean jarraitu ziren betetzen, izan ere, ez ziren aurrekontu aurreikuspen errealik zuzendu.
- *Ex novo* tipifikatu ziren portaerak askoz gehiago izan ziren despenalizatu zirenak baino⁷⁵.

Neurri hauek guztiak Belloch jaunak zin egindako aldaketa kulturaletik oso urruti geratzen ziren. Oro har, erreforma Espainia krimen arloko politketan aurreratuak ziren herrialdeetatik honek oso

⁷³ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *cit.*

⁷⁴ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *cit.*

⁷⁵ GONZÁLEZ, C.P., «Principales novedades de la reforma del Código Penal de 1995», *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 2004.

urruti kokatu zuen. Are gehiago, Zigor Zuzenbide demokratiko bat sortu beharrian, estatuari zigortzeko botere gehiago eman zitzaion.

Honen ondoren egin zen erreforma 7/2003 Lege Organikoaren bidez egindakoa izan zen, eta zioen adierazpenean honen helburua argi geratu zen: “zigorrak oso-osoki eta eraginkorki betetzea”⁷⁶. Horretarako, bi neurri hartu zituen legegileak, batetik, gehieneko muga 40 urtekoa ezarri zen, baldin eta subjektuari kondena ezarri baitzitzaion delitu bi edo gehiago egiteagatik, eta delitu horietatik biri, gutxienez, legeak 20 urtetik gorako espetxealdi-zigorra ezartzen bazien (Zigor Kodeko 76. art.). Bestetik, Zigor Kodeko 78. artikulua aldatu zen, zenbait kasutan, espetxeonurak, irteera-baimenak, hirugarren graduko sailkapena eta baldintzapeko askatasuna, zigor bakoitzetik konputatzeko eta ez kondena osotik.

RÍOS MARTÍNen aburuz, termino dogmatikoei erreparatuz, Zigor Kodea gogortzearen aldekoen garaipen bat izan zen, hartutako neurriak neoerretinbuzionistak baitziren⁷⁷.

RUZAFAn Euskal gatazkari buruz gauzatutako azterketan Estatuak E.T.A-ren aurka egindako estrategia gerra zikinaren eta legezkotasunaren artean ibili zela azaldu zuen⁷⁸. Izan ere, bere aburuz, legeak gogortzearen strategiaren ildoetako bat E.T.A-ko presoak zigorrak oso-osoki betetzea izan zen.

Legeak gogortzearen aldeko estrategia honetan, komunikabideak eta politikariak parte hartu zuten. LLOBETen aburuz, *El Mundo* eta beste komunikabide askok irakurleei eman zioten informazioa ez zen osoa izan⁷⁹. Esaterako, honako berri hau: “Diecisiete etarras excarcelados en los últimos años no han cumplido ni el 40% de la pena impuesta. Diecisiete etarras condenados a entre 30 y 200 años de cárcel fueron excarcelados en los últimos años sin haber cumplido más del 37% de la pena que les fue impuesta por los tribunales, según un informe del Gobierno”⁸⁰.

⁷⁶ Zioen Azalpeneko V. Kapitulua: “Se trata de activar una respuesta penal más efectiva frente a los autores de crímenes muy graves”.

⁷⁷ RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *cit.*

⁷⁸ RUZAFAn, R., «El País Vasco, ¿una transición diferente? Sombras en una batalla», *La historia a través del cine*, 2004.

⁷⁹ LLOBET, M., «La ficticia realidad modificada por la Ley de Cumplimiento Íntegro y Efectivo de las Penas y sus perversas consecuencias» *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 2007, 25. orl

⁸⁰ (2002ko abenduaren 30a). Diecisiete etarras excarcelados en los últimos años no han cumplido ni el 40% de la pena impuesta, *El Mundo*.

Hala ere, komunikabideak oro har ahaztu egin ziren azaltzeaz, izatez, ezarritako zigorra edo kondena errealak, pilaketa errealari metaketa materialaren arauak aplikatuz sortzen zela. Beraz, ezarritako zigorrak edo kondena errealak ezin zutela gehieneko muga gainditu. Are gehiago, hori azaltzeaz ahazten ez zirenean, tamalgarria izango balitz bezala azaldu zuten⁸¹.

Politikariei zegokionez, garai hartako justizia ministroa izan zen Micavillek (2002-2004), horrela adierazi zuen: “no se puede dar una segunda oportunidad a los terroristas y España lo lleva haciendo en 25 años de democracia”⁸². Nire aburuz, esaldi honek nahiko ongi isladatzen du justizia ministroak erreforma honekin egin nahi zuena: ordainketaren teoriak indartzea.

7/2003 erreformak E.T.A erakundeko presoek zigorrak oso-osoki betetzea xede bazuen ere, botere legegileak muga bat zuen: zigor legeen atzeraeraginkortasun eza. Legeen atzeraeraginkortasun eza zela-eta 2003ko erreformaren aurreko egitateei aurreko Zigor Kodea aplikatu behar zitzaie, izan ere, terrorismo kasuetan barneratuarentzat onuragarriagoa zen. Edonola ere, nahiz eta legegileak muga hau eduki, arauak interpretatu behar zituztenek agian beste zerbait egin zezaketen...⁸³

⁸¹ LLOBET, M., «La ficticia realidad» *cit.*, 26 orl.

⁸² LLOBET, M., «La ficticia realidad» *cit.*, 2007, 26 orl.

⁸³ RUZAFÁ, R., «El País Vasco», *cit.*, 86 orl: “En los años de debate del código penal, que coinciden con el hostigamiento político, a la postre exitoso, del Partido Popular al PSOE, se suscitó la cuestión aún candente del cumplimiento íntegro de las penas en casos de terrorismo”.

3. IBILBIDE JURISPRUDENTZIALA

3.1. ENTZUTEGI NAZIONALEKO AUTOA

Entzutegi Nazionaleko Zigor Arloko Salako Lehen Atalak 2005eko apirilaren 26an emandako Autoaren⁸⁴ bitartez eman zitzaion hasiera Parot Doktrinari. Bertan, Entzutegi Nazionaleko magistratuek Prozedura Kriminaleko Legeko 988. artikuluan oinarrituz, Unai Henri Paroti ezarritako kondenak bi bloke ezberdinetan metatzea erabaki zuten.

Magistratuek ulertu zuten denbora tarte luzeegia zela arau-hausteen artean gutxieneko lotura kronologikoren bat egoteko, izan ere, lehenengo eta azkeneko delituaren artean hamabi urte eskas pasa ziren. Horrez gain, magistratuek argudiatu zuten espetxe-onuren aurreko interpretazioak saritu egiten zuela delitu asko gauzatzen zituzten barneratuak, gutxi gauzatzen zituztenen aurrean. Halaber, Ministeritza Fiskalaren argudioa bereganatu zuten, hau da, Parotek bi komando ezberdinetan parte hartu zuela, lehenengoa 1979tik 1984ra eta bigarrena 1984tik 1990era, eta bi komando arteko tarte horretan jarduera deliktiboa eten egin zela.

Arrazoi hauek horrela, Entzutegi Nazionaleko Zigor Arloko Salako Lehenengo Atalak zigorrak bi bloke ezberdinetan metatzea erabaki zuen: Lehenengo blokea 1979tik 1982ra eta bigarren blokea 1984tik 1990era.

Auto honen ondorio nagusia espetxe-onurak praktikan erabateko eraginkortasuna galtzea izan zen. Hain zuzen ere, espetxe-onura 30 urteko gehieneko mugatik beharrean zigor larrienetik deskontatzen hasiko zen, eta hau ordaintzean, bigarren zigor larriena ordaindu behar zen, eta horrela zigor guztiak bete arte.

⁸⁴ Entzutegi Nazionaleko, Zigor Arloko Salako (lehenengo Atalaleko), 2013/136552 Autoa, 2005eko Apirilaren 26koa 1000012/1984 Betearazpen prozedura zenbakia; Zigor Salako, lehenengo atala, besteak beste, Javier Gómez Bermudez, Manuela Fernandez Prado eta Nicolas Poveda Peñas magistratuek osatzen zuten.

3.2. AUZITEGI GORENEKO 197/2006 EPAIA

a) OINARRI JURIDIKOAK

Auzitegi Goreneko epaiak⁸⁵, bere laugarren oinarri juridikoan, ondorioztatu zuen 1973ko Zigor Kodeko 70. artikulua ez zuela kontsideratzen 30 urteko muga zigor berri bat zenik, hain zuzen ere, muga horrek barneratuak espetxean iraungo zuen gehieneko denbora soilik adierazten zuelako. Auzitegia interpretazio hau egiteko ondorengo arrazoi hauetan oinarritu zen (4. OJ):

Lehenik, arrazoi gramatikaletan oinarritu ziren; Magistratuen aburuz, Zigor Kodeak ez zuen ulertzea ematen gehieneko muga zigor berri bat zenik eta bertatik aplikatu behar zirenik espetxe-onurak. Alde batetik, Zigor Kodeak zigorra eta kondena bi kontzeptu ezberdin bezala kontsideratu zituelako. Bestetik, Zigor Kodeak gehieneko mugari erreferentzia egiten zionean, kondena terminoarekin egiten ziolako. Beraz, kondena bat zigor ezberdinez osatuta bazegoen, espetxe-onurak zigor bakoitzari aplikatu behar zitzaizkiola ondorioztatu zuten.

Bigarrenik, Magistratuek argudiatu zuten kondenak ez zuela gehieneko mugarekin bat egiten pilaketa erreala⁸⁶ zela-eta. Hau da, 4000 urteko kondena egon zitekeela eta gehieneko muga 30 urtekoa izan zatekeela. Haatik, gehieneko mugarekin pilaketa idealak eta delitu jarraituen sistemak bat egiten zuela, ondorioz, zigor berri bat sortuz. Beraz, sistemaren egituraketa aurreko interpretazioren aurkakoa zela argudiatu zuten.

Hirugarrenik, Auzitegia argudio teleologiko batean oinarritu zen, adieraziz ez zuela inongo zentzurik delitu bakarra egin zuen delitugileari eta hainbat delitu egin zituenari gehieneko muga bera ezartzeak, delitu historial handiak saritzen baitzituen .

Laugarrenik, indultua emateko jarraibideak magistratuen interpretazioa babesten zuen. Indultuen kasuan, hauek zigor bakoitzari aplikatzen zitzaizkion eta ez gehieneko mugari. Beraz, hemen ere, espetxe-onurak gehieneko mugari kendu beharrean, zigor bakoitzari kendu beharko zitzaizkion ulertu zuten.

⁸⁵ Auzitegi Goreneko, Zigor Arloko (bigarren sala), 197/2006 epaia, 2006ko otsailaren 28koa.

⁸⁶ 1973ko Zigor Kodeko 69. artikulua: "69. Al culpable de dos o más delitos o faltas se le impondrán todas las penas correspondientes a las diversas infracciones para su cumplimiento simultáneo, si fuera posible, por la naturaleza y efectos de las mismas".

Gauzak horrela, Auzitegi Gorenak kondena betetzearen inguruan ondorengo interpretazio berritzailea egin zuen: Kondena osatzen zuten espetxe-zigor bakoitzari aplikatuko zitzaizkion espetxe-onurak. Lehenengo, espetxe zigor larriena bete beharko zen, hau bete ondoren bigarren larriena eta horrela 1973ko Zigor Kodeko 70. artikuluko⁸⁷ gehieneko mugara iritsi arte. Azkenik, gehieneko mugara heltzean, kondena osatzen zuten beste zigor guztiak azkenduko ziren.

Interpretazio berriaren arabera, adibidez, hiru delitutara kondenatuta egongo bazen: 1. Zigorra 30 urtekoa edukiz, bigarrena 15ekoa eta hirugarrena 10 urtekoa, aplikagarria zen araua 1973 Zigor Kodeko 70. artikuluko bigarren araua izango zatekeen. Kasu honetan, muga 30 urtekoa izango zatekeen, baina lanaren bidez zigorra ordaintzean datzan espetxe-onura 30 urteko kondenatik deskontatzen hasiko zatekeen, lanaren bidez zigorra ordainduta bete beharrekoa baina 10 urte gutxiago beteko zituzkeen espetxean, beraz 20 urtetan zigor hori beteta edukiko zukeen. Ondoren, zigorraren larritasunaren arabera, bigarren larrienetik kentzen hasi beharko zitzaiokeen, 15 urtekoa, honetatik bost urte deskontatuz, 10 urtetan betea edukiko zukeen. Ondorioz, (20+10) 30 urteko gehieneko mugara iritsi zenez, erabat aske geldituko zatekeen, nahiz eta, oraindik 10 urteko kondena (3. Zigorra) geldituko zitzaiokeen.

Beraz, gehieneko mugara iritsi zenez, gainontzeko zigorrak azkendu egiten ziren, eta ondorioa argi zegoen: espetxe-onura aplikatuta eta aplikatu gabe, berdin gelditzen zela (Alegia, 30 urte osorik bete beharko zituela)

⁸⁷ Zigor Kodeko 70. Artikulua: “70. Cuando todas o algunas de las penas correspondientes a las diversas infracciones no pudieran ser cumplidas simultáneamente por el condenado, se observarán, respecto a ellas, las reglas siguientes: 1.^a En la imposición de las penas se seguirá el orden de su respectiva gravedad para su cumplimiento sucesivo por el condenado en cuanto sea posible, por haber obtenido indulto de las primeramente impuestas o por haberlas ya cumplido. La gravedad respectiva de las penas para la observancia de lo dispuesto en el párrafo anterior se determinará con arreglo a la siguiente escala: Muerte. Reclusión mayor. Reclusión menor. Presidio mayor. Prisión mayor. Presidio menor. Prisión menor. Arresto mayor. Extrañamiento. Confinamiento. Destierro. 2.^a No obstante lo dispuesto en la regla anterior, el máximo de cumplimiento de la condena del culpable no podrá exceder del tripo del tiempo por que se le impusiere la más grave de las penas en que haya incurrido, dejando de extinguir las que procedan desde que las ya impuestas cubrieren el máximo de tiempo predicho, que no podrá exceder de treinta años. La limitación se aplicará aunque las penas se hubieran impuesto en distintos procesos si los hechos, por su conexión, pudieran haberse enjuiciado en uno solo”.

Auzitegiak, jurisprudentziari erreparatuz, Auzitegi Goreneko 1817/1999⁸⁸ eta 1223/2005⁸⁹ epaietan oinarritu zuen bere interpretazio berriaren ildoak. Izan ere, epaia hauek adierazten zuten kondena zigor ezberdinek osatzen zutela (5. O.J). Horrez gain, Magistratuek argudiatu zuten 70.1. eta 100. artikuluen interpretaziorik ez zela egin ordura arte, eta ondorioz Kode Zibileko 1.6⁹⁰ artikulua araberak, Auzitegi Gorenak gaiaren inguruko interpretazioa egiteko aukera zuela.

Dena dela, Auzitegi Goreneko 1994ko Martxoaren 8ko epaiak⁹¹, 1973ko Zigor Kodeko 70.2 xedapenek ezarritako betearazpen muga zigor berri eta autonomo zela adierazi zuen. Haatik, kasua epaitu zenetik gaur egun arte ez zen epaia berretsi. Horrez gain, Auzitegiaren arabera, epai hau ezin zitekeen jurisprudentziaren parte kontsideratu, erregelamendu batean oinarrituta baitzegoen.

Bukatzeko, epai honek espetxeratuaren oinarritzko eskubideetan zuen eraginaren inguruan ondorengo irizpena eman zuten. Alde batetik, EK 14.⁹² Artikuluari zegokionez, Auzitegi Konstituzionalak argi eta garbi adierazi izan du bere epaietan arrazoituak zeuden aldaketa jurisprudentzialek ez zutela eraginik berdintasun eskubidean, 42/1993⁹³ y 71/1998⁹⁴ epaien arabera. Bestetik, EK 9.3 eta 25.2 artikuluei erreparatuz, Konstituzio Auzitegiaren epai honen arabera, atzera eraginkortasun ezaren printzipioa ez zitzaiola aplikagarri jurisprudentziari,

88 Auzitegi Goreneko Zigor Arloko 1817/1999 epaia, 1999ko abenduaren 24koa (1. OJ): "La pena constituye la medida de la culpabilidad para cada uno de los delitos aisladamente considerados, por lo que su valoración a efectos de una posterior acumulación, también tiene que hacerse individualmente sin tener en cuenta, como nueva pena, el límite del triple de la pena mayor de las impuestas en los supuestos de concurso real de delitos".

89 Auzitegi Goreneko, Zigor Arloko 1223/2005 epaia, 2005ko urriaren 14koa (1, OJ): "Ahora bien, para obtener el conjunto triple ha de tenerse en cuenta la pena concreta impuesta a cada delito y no la condena total establecida en sentencia cuando sean juzgados varios delitos".

90 Kode Zibileko 1.6 Artikulua: "6. La jurisprudencia complementará el ordenamiento jurídico con la doctrina que, de modo reiterado, establezca el Tribunal Supremo al interpretar y aplicar la ley, la costumbre y los principios generales del derecho".

91 Auzitegi Goreneko, Zigor Arloko 820 zenbakiko epaia 1994ko Martxoaren 8koa:" la pena señalada en el art. 70.2 del Código Penal, el límite de treinta años en este caso, opera ya como una pena nueva, resultante y autónoma y a ella deben referirse los beneficios otorgados por la Ley, como son la libertad condicional y la redención de penas. Se trata de una interpretación realizada por el órgano a quo contra reo y que por ello debe proibirse. El art. 59 del Reglamento Penitenciario no parece apoyar la interpretación de la Sala de instancia, pues se refiere a la pena impuesta y que la suma penimétrica es considerada como una nueva sanción. Sobre la pena resultante, que podría ser el triple de la más grave de las sanciones o bien el límite de treinta años, cuando aquél exceda de ese límite, es donde deben operar los beneficios penitenciarios y no distinguir".

92 Espainiar Konstituzioko 14. Artikulua: "Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik".

93 Konstituzio Auzitegiko, bigarren salako, 42/1993 epaia, otsailaren 8koa.

94 Konstituzio Auzitegiko, bigarren salako, 71/1998 epaia, martxoaren 30ekoa.

legediari (E.K 25.1 art.) eta xedapen orokorreari baizik (E.K 9.3 art.), Auzitegi Goreneko 1101/1998⁹⁵ epaiaren arabera.

b) **BOZKA PARTIKULARRA**

José Antonio Martín Pallín, Joaquín Giménez García eta Perfecto Andrés Ibáñez magistratuek osatu zuten epaiaren aurkako bozka partikularra.

Lehenik, Magistratuek adierazi zuten Zigor Kodeko 70.2 artikulua interpretazioa eta testuingurua erabat aldatzen zituela epaiak. Horren adibide jarri zuten 7/2003 Lege Organikoaren zioen azalpena⁹⁶, izan ere, bertan legegileak argi zeukan espetxe-onurak zigor bakoitzetik aplikatzeak ez zeukala inongo oinarri juridikorik 1995ko Zigor Kodean (5. OJ).

Bigarrenik, Magistratuek adierazi zuten, 1995ko Zigor Kodea indarrean sartu zenean Espainiako Auzitegiek 1973ko Zigor Kodea eta 1995ko Zigor Kodearen artean barneratuentzat zein zen onuragarriena aukeratu behar izan zutela, eta Espainiako Auzitegi guztiek (Auzitegi Gorena barne) hartu zuten erabakia 1973ko Zigor Kodea aplikatzea izan zela. Izan ere, kontuan hartu zuten 1973ko Zigor Kodeak gehieneko mugatik aplikatzen zuela laren bidez zigorra ordaintzea (6. OJ).

Hirugarrenik, bozkek epaiak zenbait oinarrizko eskubide urratu zituela adierazi zuen, besteak beste, legezketasun printzipioa, berdintasun printzipioa eta askatasun pertsonalerako eskubidea (7. OJ). Legezketasun printzipioari zegokionez, *contra reo* egindako interpretazioa zela adierazi zuten, eta hori E.K 9.3 artikuluan debekatuta zegoela. Bestetik, berdintasun printzipioari erreparatuz (EK14.art.), E.T.A talde terroristako espetxeratuak zuzendutako interpretazio bat zela ulertzen zuten eta honek E.K 55.2 artikuluko salbuespen guztiak gainditzen zituela. Bestalde,

⁹⁵ Auzitegi Goreneko, Zigor Salako, lehenengo ataleko, 1101/1998 epaia, 1998ko urriaren 1ekoa.

⁹⁶ Ekainak 30eko 7/2003 Lege Organikoko Zioen Azalpena: "La Ley reforma el artículo 78 del Código Penal para que los beneficios penitenciarios, los permisos de salida, la clasificación en tercer grado y el cómputo de tiempo para la libertad condicional en los supuestos de crímenes especialmente graves se refieran siempre a la totalidad de las penas impuestas en las sentencias. Se modifican, igualmente, en el Código Penal los artículos 90 y 91 relativos a la libertad condicional. Con esta modificación se trata de mejorar técnicamente los supuestos de otorgamiento de dicha libertad condicional y su adaptación a las distintas modalidades delictivas. Por último, mediante la disposición transitoria única, la Ley establece que los criterios objetivos de acceso a los beneficios penitenciarios se apliquen a quienes cumplen en el momento de su entrada en vigor penas de prisión por delitos de terrorismo sin que se modifiquen, en estos casos, los plazos y demás condiciones por las que hasta ese momento se regían las condiciones de dichos beneficios".

askatasun eskubidea ere (E.K 17. art.⁹⁷) hau urratuta izan zela adierazi zuten 11/1987⁹⁸ epaian oinarrituz.

Laugarrenik, bozka tarteratu zuten Magistratuek azaldu zuten Kode Zibileko 3.1. artikulua jurisprudenzia ebolutiboa zela arautzen zuela, baina epai honek egindako irizpide aldaketa oinarri gabekoa izateaz gain, *contra reo* egindakoa zela (8. OJ). Gainera, epai honek egindako interpretazio berria 1973ko Zigor Kodearen filosofiatik oso urruti zegoela, izan ere, honen helburua ez zen zigorra osoki betetzea. Hori zela-eta, ordura arte 1994ko Martxoak 8ko epaian⁹⁹, 2005ko Irailaren 15eko epaian¹⁰⁰ eta 2005eko Urriaren 14ko epaian¹⁰¹ egindako doktrina jarraitu behar zela azaldu zuten.

Bosgarrenik, Magistratuek beraien bozketan azaldu zuten epaileen gehiengoak hartutako erabakia komunikabideek eta iritzi publikoak sortutako presioak medio hartutako erabaki bat izan zela (9. OJ).

Seigarrenik, *reformatio in peius* bitartez defentsarako eskubidea urratua izan zela adierazi zuten, izan ere, helegite jartzaileak ez zuen irizpide berri honen inguruan eztabaidatzeko aukerarik eduki (10. OJ).

Bukatzeko, jurisprudenzia aldaketak egiteko Auzitegi Konstituzionalak 1999ko Urriaren 28ko 202/1991 epaian¹⁰² emandako irizpideak ez zituztela bete adierazi zuten (11. OJ).

⁹⁷ Espainiako Konstituzioko 17.1 artikulua: "Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley".

⁹⁸ Auzitegi Konstituzionaleko, bigarren ataleko, 11/1987 epaia, urtarrilaren 30ekoa: "la posibilidad de que se aplique a las penas que le han sido infligidas en distintas causas la limitación del art. 70.2 del C.P., afecta a un derecho fundamental cual es el de la libertad personal (art. 17 de la Constitución)".

⁹⁹ Auzitegi Goreneko, Zigor Salako, lehenengo ataleko, 820 zenbakiko epaia 1994ko martxoaren 8koa: "Se olvida por el Tribunal de instancia que la pena señalada en el art. 70.2 del Código Penal, el límite de treinta años en este caso, opera ya como una pena nueva, resultante y autónoma y a ella deben referirse los beneficios otorgados por la Ley, como son la libertad condicional y la redención de penas".

¹⁰⁰ Auzitegi Goreneko, Zigor Salako, lehenengo ataleko 1003/2005 epaia, 2005eko irailak 15ekoa: "Dicho límite opera ya como una pena nueva, resultante y autónoma y a ella deben referirse los beneficios otorgados por la Ley como son la libertad condicional, permisos de salida, clasificación en tercer grado...".

¹⁰¹ Auzitegi Goreneko, Zigor Salako, lehenengo ataleko 1223/2005 epaia, 2005eko urriaren 14koa: "el triple de la pena más grave, sin exceder de 20 años, aunque este último límite admite determinadas ampliaciones expresadas en las letras a), b), c) y d); las dos últimas introducidas por la LO. 7/2003 y dicho límite "opera ya como una pena nueva, resultante y autónoma y a ella deben referirse los beneficios otorgados por la Ley, como son la libertad condicional con las salvedades previstas en el art. 78 CP".

¹⁰² Auzitegi Konstituzionaleko, bigarren ataleko, 202/1991 epaia, 1991ko urriaren 28koa: "En relación con el principio de igualdad en la aplicación de la ley, este Tribunal Constitucional ha establecido una doctrina

3.3. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN INTERPRETAZIOA

a) EPAIAK

Auzitegi Goreneko epaia ez zen erabaki bakartu bat izan; izan ere, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (aurrerantzean, EPPK-ko) presoek gain gainerako presoek ere hasi zitzaizkien aplikatzen Parot Doktrina. Horretarako, espetxeetako zuzendariak zigorren metatzeko sistema aldatzeko proposamenak hasi ziren bidaltzen Entzutegi Nazionalera. Proposamen horiei erantzuteko, babes helegiteak tarteratu zituen nagusiki EPPK aholkularitza juridikoan lan egiten zuten abokatuak¹⁰³.

Tarteratutako helegiteetan ondorengo eskubide hauek urratuak izan zirela salatzen zen: Babes judizial eraginkorra (E.K 24.1. art.), berme guztiak dituen prozesua (E.K 24.2. art.), legezketasuna (E.K 25.1, 2. art.), askatasuna (E.K 17. art.), legea aplikatzerakoan berdintasuna (E.K 14. art.), eraginkorra zen helegite bat tarteratzeko eskubidea (E.K 17 art. eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmeneko 14.5 art.).

Parot Doktrinaren aurrean, Konstituzio-Auzitegiak emandako erabaki judizialak hiru multzotan sailka zitezkeen¹⁰⁴:

- A. Lehenengo multzoan, demanda batzuk **ez ziren tramitera onartu**, ez baitzuten bide judiziala amaitu. Izan ere, kasu horietan Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea tarteratzerako aukera zegoen¹⁰⁵.

constante y reiterada, según la cual los órganos judiciales pueden modificar sus propios precedentes, siempre que lo hagan en términos que permitan apreciar que el nuevo criterio interpretativo ha sido adoptado como solución genérica dotada de vocación para ser aplicada en casos futuros y no como cambio inadvertido por el órgano judicial o que sea fruto de voluntarismo selectivo frente a supuestos anteriores resueltos de modo diverso. Por lo tanto, lo que prohíbe el principio de igualdad en la aplicación de la ley es el cambio irreflexivo o arbitrario, lo cual equivale a sostener que el cambio es legítimo cuando es razonado, razonable y con vocación de futuro, esto es, destinado a ser mantenido con cierta continuidad con fundamento en razones jurídicas objetivas que excluyan todo significado de resolución ad personam, siendo ilegítimo si constituye tan sólo una ruptura ocasional en una línea que se viene manteniendo con normal uniformidad antes de la decisión divergente o se continúa con posterioridad (SSTC 64/1984, 49/1985, 108/1988, 199/1990 y 144/1991, entre otras)".

¹⁰³ OSTOLAZA, O., «Elkarrizketa», zigor zuzenbidean aditua eta 373 Abokatuk kooperatibako kide, 2020ko maiatzaren 3an, *cit.*

¹⁰⁴ CUERDO, A., *La doctrina Parot, el tribunal europeo de derechos humanos y la separación de poderes*, Iustel, Madrid, 2014, 104 orrialdea.

¹⁰⁵ Konstituzio Auzitegiko 58/2012 epaia, 2012ko martxoaren 29koa; Konstituzio Auzitegiko 60/2012 epaia, 2012ko martxoaren 29koa; Konstituzio Auzitegiko 63/2012 epaia, 2012ko Martxoaren 29koa; Konstituzio

B. Bigarrenik, beste epai batzuk Parot Doktrinaren **aurkakoak** izan ziren, honek babes judizial eraginkorra urratzen zuela uste zutelako. Orotara, soilik hiru erabaki judizial izan ziren, 39/2012, 57/2012 eta 62/2012 epaiak¹⁰⁶.

Kasu hauetan epai irmoak ukiezinak zirela argudiatu zuten. Hau da, babes judizial eraginkorra izatearen eskubideak epai irmoak ukiezin egiten zituela. Nire aburuz, doktrina atzera botatzeko nahikoa zen zigorra behin betiko azkendutzat ematen zuen erabaki judizial bat egotea. Eta horretarako, kondena-likidazio orria aurkeztea beharrezkoa zen, askatasuna lortzeko aurreikuspena sortzen baitzuen. Babes judizial eraginkorra urratu egin zela erabaki zenez, askatasun eskubidea ere urratu zela erabaki zuten. Dena dela, legezkotasun printzipioaren berme kriminala eta berdintasun eskubideak ez zirela urratu adierazi zuten.

39/2012 epaia lehenengoak izan ziren bi bozka partikularrek osatzen zuten. Alde batetik, Pablo Perez Trepsek askatasun eskubidearen urraketa lege-urraketa autonomo bat zela adierazi zuten¹⁰⁷. Izan ere, askatasuna mugatzen zuen edozein erabakik legezko estaldura bat eduki behar zuten, Konstituzio Auzitegiko 57/2008¹⁰⁸ eta GEEA “Baranowski c Polonia”ren¹⁰⁹ epaien arabera.

Bestetik, Luis Ignacio Ortega magistratua Adela Asuak jarritako bozka partikularrera atxiki zen. Bi magistratuek bat egin zuten babes judizial eraginkorra eta askatasunaren inguruan aurreko magistratuek egindako irakurketarekin, aitzitik adierazi zuten urraketa oinarria legezkotasun printzipioaren urraketan zegoela¹¹⁰. Hori horrela izanik, barneratua espetze-zigorra betetzen ari

Auzitegiko 128/2012 epaia, 2012ko ekainak 18koa; Konstituzio Auzitegiko 128/2012 epaia, 2012ko ekainak 16koa; Konstituzio Auzitegiko 152/2012 epaia, 2012ko uztailaren 16koa.

¹⁰⁶ Konstituzio Auzitegiko 39/2012 epaia, 2012ko martxoaren 29koa; Konstituzio Auzitegiko 57/2012 epaia, 2012ko martxoaren 29koa; Konstituzio Auzitegiko 32/2012 epaia, 2012ko Apirilaren 27koa.

¹⁰⁷ Konstituzio Auzitegiko 39/2012 epaiko, 2012ko martxoaren 29ko Perez Trempsen bozka partikularra “La aplicación de este nuevo criterio jurisprudencial había producido la vulneración aducida del derecho a la libertad personal (art. 17.1 CE). En mi opinión, desde una lectura y análisis de este derecho fundamental comprensiva de su carácter de garantía esencial del ciudadano y de su valor primordial del Estado social y democrático de Derecho (art. 1.1. CE), creo que debería haberse concluido que dicha aplicación, por las razones que paso a exponer, sí vulneró el derecho fundamental a la libertad personal del recurrente”.

¹⁰⁸ Auzitegi Konstituzionaleko 57/2008 epaia, Apirilaren 28koa.

¹⁰⁹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko 28358/95 “Baranowski c. Polonia” § 51 epaia, 2000ko martxoaren 28a.

¹¹⁰ Auzitegi Konstituzionaleko Martxoaren 29ko 39/2012 epaiko, Adela Asua eta Luis Ignacio Ortégaren bozka partikularra: “Mi discrepancia básica se refiere a la insuficiente fundamentación que ofrece la Sentencia para rechazar la alegación sobre la vulneración del derecho fundamental a la legalidad penal ex art. 25.1 CE, queja que a mi juicio debiera haberse estimado en base a los argumentos que mantuve en la deliberación en el Pleno... La cuestión central del presente recurso reside en la aplicación por la resolución

zela, zigorra lanaren bidez ordaintzen joaten zenez, aurreikuspen juridiko batzuk eman zitzaizkiola ulertzen zuten. Are gehiago, zigorraren metatze arauen aldaketa honek, barneratuak espetxe-zigorraren iraupen eraginkorraren aurreikuspen guztiak hausten zituela adierazi zuten.

C. Hirugarrenik, Auzitegi Konstituzionalak emandako epai gehienak **ezespen-epaiak** izan ziren, horrela, Parot doktrina berretsiz¹¹¹.

Legezketasun printzipioaren inguruan, epai hauek bereizi nahi izan zuten zigorraren interpretazioa eta betearazpena ez zirela barne biltzen Espainiako Konstituzioko 25.1 artikuluan, Konstituzioak zigorrei soilik egiten baitzien erreferentzia. Interpretazio hori indartzeko, epai hauek GEEAren jurisprudentzia jaso zuten: “Eskubide honen garantiaren aurrean bi kontzeptu bereizi behar dira, alde batetik, zigorra bera, bestetik, zigorraren exekuzio edo aplikazioari eragiten dioten neurriak. Bigarrenak ez dira barneratzen GEEHren 7.Artikuluaren barnean”, GEEAko “*Grava c. Italia*” epaia¹¹².

Halaber, 7/2003 lege erreforma¹¹³ ez zela atzeraeraginez aplikatu adierazi zuten. Funtsean, interpretazio berri bat egin zelako 1973ko Zigor Kodeko 70.2 eta 100 artikuluei buruz. Erreforma horrek, hirugarren gradua, baldintzapeko askatasuna eta zigorraren betearazpenari buruzko beste atal batzuk arautu zituelako eta ez zigorra lanaren bidez ordaintzea.

Gainera, Konstituzio Auzitegiaren aburuz, berdintasun eskubidea ez zen urratu, egindako jurisprudentzia aldaketan aukeratze selektiborik eta arbitrarioz edo kasu bakoitzerako aldaketarik ez zelako egon.

judicial impugnada de una interpretación desfavorable del art. 70.2 del Código penal (CP) de 1973 que quiebra el pacífico entendimiento mantenido hasta entonces, y que desencadena una prolongación efectiva del periodo de cumplimiento de una pena privativa de libertad”.

¹¹¹ Konstituzio Auzitegiko, 40/2012 epaitik 69/2012 epai bitarte, martxoaren 29koa (Arestian aipatutako 57/2012, 58/2012, 60/2012 eta 63/2012 epaiak salbu), Konstituzio Auzitegiko 108/2012 epaia, maiatzaren 21ekoa eta Konstituzio Auzitegiko 114/2012 epaia, ekainaren 24koa.

¹¹² GEEAko “*Grava c. Italia*” 43522/98 epaia, 2003ko ekaiaren 10a: “Dès lors, aucun problème sous l'angle de l'article 7 de la Convention ne se pose à cet égard. De plus, de l'avis de la Cour, la « peine » au sens de l'article 7 § 1 doit être considérée comme étant celle de quatre ans d'emprisonnement. En effet la question de l'octroi de la remise prévue par le décret présidentiel no 394 de 1990 concerne l'exécution de la peine et non la peine elle-même. En conséquence, on ne saurait dire que la « peine » infligée ait été plus lourde que celle qui était prévue par la loi”.

¹¹³ 7/2003 Lege erreforma, zigorrak oso osoki betetzea helburu zuen erreforma bat izan zen eta bertan, baldintzapeko askatasuna, hirugarren gradua eta beste zigorren betearazpenari buruzko atalak, gehieneko mugatik kalkulatu beharrean kondena osotik kalkulatzeko ezarri zuen.

Bestalde, epaileek argudiatu zuten babes judizial eraginkorra, epaien ukiezintasun aldaeran eta askatasun eskubidearen aldaeran, ez zela urratu. Lehenengo, ez zelako epai irmorik egon lanaren bidez zigorra ordaintzeari buruzko irizpidea finkatu zuena. Bigarren, helegin zuten pertsonak ez zutelako jaso beraien espetxealdiaren amaiera zehazten zuen erabaki judizialik, kondena-likidazio bitartez. Ondorioz, barneratuei ez zitzaizela aurreikuspen zehatzik eskaini defendatu zuten.

Azkenik, barneratuari askatasuna mugatzen zioten zigorrak berreziketara eta birgizarteratzea zuzentzeko eskubideari zegokionez, ez zela oinarrizko eskubidea adierazi zuten. Beraz, babes helegitea honetarako ezin zitekeela erabili, eta zigor zein espetxe politikaren inguruan legegilearentzako orientabide bat besterik ez zela erabaki zuten.

b) EZESPEN EPAIEN BOZKA PARTIKULARRAK

Atal honetan aztergai izango diren bozka partikularrak Konstituzio Auzitegiko 39/2012 eta 41/2012 epaikoak izango dira, izan ere, nire aburuz bertan jasotzen ziren, luzeen eta sakonen, Konstituzio Auzitegiaren interpretazioarekin desadostasuna azaldu zuten bozka partikularrak.

39/2012 epaia bigarren multzoko epaietan (Parot Doktrinaren aurka egin zuten erabaki judizialak) barnebiltzen zen eta epai hartako bozka partikularra Adela Asua, Francisco Pérez eta Luis Ignacio Ortega magistratuena izan zen. Arestian aipatu bezala, Konstituzio Auzitegiak multzo honetako egitateei buruz ulertzen zuen barneratuek espetxe-onurei buruzko behin betiko erabaki judiziala jaso zutela, eta ondorioz, aurreikuspen bat sortu zitzaizela.

Aldiz, hirugarren multzotzean, barneratuari emandako dokumentuak behin-behinekoak zirenez, Parot Doktrina berretsi zuten. Kasu honetan ere, nahiz eta egitateak aldatu, Adela Asua eta Francisco Pérez magistratuek aurreko epaiaren argudioei eutsi zieten. Baina Luis Ignacio Ortega (aurreko multzoarentzako beste bozka partikular bat jarria zuen jadanik), Elísa Pérez eta Eugani Gay magistratuek, egitate berrien aurrean, bozka partikular berriak tarteratu zituzten:

Lehenik, Elísa Pérezek, epaien ukiezintasunaren urraketa eman zela ulertu zuen, eta bere bozka partikularrean horrela adierazi zuen: 1995eko Zigor Kodea indarrean sartu zenean, 1996ko Maiatzaren 30eko Autoak adierazi zuen espetxe-zigorra ez zela berrikusi behar, 1973ko Zigor

Kodea onuragarriago zelako. Ondorioz, orain erabaki judizial hori berrikustek aurrekoa autoa ukitzea ekarriko zuen.

Bigarrenik, Eugeni Gay Montalvo magistratuarena izan zen. Bere aburuz, epaiak onuragarria izan behar zuen, besteak beste, askatasun eskubidea, legezketasuna eta babes judizial eraginkorra epaien ukiezintasunaren aldaeran urratuak izan zirelako. Auzitegi Goreneko 197/2006 epaiak, 1973ko Zigor Kodeko 100. eta 70.2 artikuluen egindako interpretazioak zigorra lanaren bidez ordaintzearen espetxe-onura indargabe uztea Konstituzioaren aurkakoa zela adierazi zuen. Espainiako legedia jarraituz ezarritako zigorra baino luzeago ezartzen zitzaion edozein luzapenek askatasun eskubidearen aurka egiten zuela adierazi zuen, "Grava c. Italia" epaia betez.

Azkenik, Luis I. Ortega Álvarezek ere bozka partikularra jarri zuen, oro har, helegin zuen pertsonak bere zigorra osorik bete zuela ulertu zuen, eta horregatik espetxean jarraitzeak zuzenean bere askatasunean eskubidearen urraketa sortzen ziola.

3.4. GEEAKO EPAIAK

a) LEHENENGO AUZITEGI-GELAKO EPAIA

EGITATEAK:

Del Río Prada anderea 1958 urtean jaiotako emakume Tafallarra zen, eta 2009ko abuztuaren 3an Espainiar Estatua demandatu zuen, Parot Doktrinarengatik espetxean aurreikusten zuena baino urte gehiago pasa behar izan zituela argudiatuz. Izan ere, jurisprudentzia aldaketa honek bere oinarrizko eskubideak urratua zituela ulertu zuen, eta demanda aurrera eramateko Donibane Lohizuneko Rouget eta Iruñako Amaia Izko abokatuen laguntza izan zuen.

Demandatzaileak 1987ko otsailaren 14an eman zion hasiera 3000 urtetik gorako espetxe zigorra betetzeari, zeina Entzutegi Nazionalak 8 prozedimendutan ezarri baitzion. 2000ko azaroaren 30eko erabaki judizial baten bitartez demandatzaileari jakinarazi zitzaion, berak egindako delituen artean lotura kronologiko eta judiziala zela-eta, zigor guztiak metatuko zitzaizkiola, PKLko 988 eta 1973ko Zigor Kodeko 70. artikulua jarraituz. Bertan, Entzutegi Nazionalak 30 urteko espetxe-zigorraren gehieneko muga ezarri zuen.

Ondoren, Entzutegi Nazionalak Inés Del Río Pradaren espetxe-zigorraren amaiera 2017ko Ekainaren 27an zehaztu zuen, 2001eko otsailaren 15eko kondena-likidazioan. Baina, 2008ko Apirilaren 24an demandatzailearen espetxe-zentroak lanaren bidez zigorra ordaintzearen espetxe-onura (aurreko interpretazioaren arabera) aplikatu zuen eta espetxe-zigorraren amaiera 2008ko uztailaren 2an zehaztu.

Haatik, Entzutegi Nazionalak 2008ko maiatzaren 29ko probidentzian espetxe-agintaritzari bi neurri eskatu zizkion: lehenengo, espetxe-zentroak ezarritako irteera data deuseztatzea. Bigarrenik, Auzitegi Goreneko 197/2006 epaiko jurisprudentzia berriaren arabera kalkulu berri bat egitea.

Jarraian, Inés Del Río Pradak erabaki honen aurrean erregu-helegitea tarteratu zuen, eta bertan, besteak beste, 197/2006 epaiak *contra reo* diren zigor legeen atzeraeraginkortasun ezaren printzipioa urratzen zuela adierazi zuen. Hain zuen ere, interpretazio berri honek demandatzailearen zigorra bederatzi urtez luzatzen zuen.

Entzutegi Nazionalak erregu-helegitea ezetsi egin zuen eta arazoa espetxe-zigorren gehieneko mugen betearazpenari buruzkoa izan beharrean, espetxe-onurak zigorrean aplikatzeko moduari buruzkoa zela adierazi zuen¹¹⁴.

Del Río Pradak ezespren autoaren aurka babes-helegitea tarteratu zuen, eta bertan honako eskubide hauek urratuak izan zirela alegatu zuen: babes judizial eraginkorra (E.K 24.1 art.), berme guztiak dituen prozesua (E.K 24.2 art.), legezketasuna (E.K 25.1, 2 art.), askatasuna (E.K 17. art.), legea aplikatzerakoan berdintasuna (E.K 14 art.), eraginkorra den helegite bat tarteratzeko eskubidea (E.K 17 art. eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmeneko 14.5 art.).

Konstituzio Auzitegiak, 2009ko otsailaren 17ko autoan, Amaia Izko abokatuak jarritako babes helegitea onartezintzat jo, eta helarazitako keak bidezketasun konstituzionalik ez zutela erabaki zuen¹¹⁵.

Honekin Estatuko barne ordenamenduko ibilbide judiziala bukatu zen, baina Giza Eskubideen Europar Auzitegiko 34. artikulua baita¹¹⁶, Del Río Pradak geratzen zitzaion azken auzialdira jo zuen: Giza Eskubideen Europar Auzitegira.

OINARRI JURIDIKOAK ETA EPAITZA

- Legezketasun printzipioa (GEEH 7. Artikulua)
 - o Alderdien alegazioak

Batik bat, demandatzaileak Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia atzeraeraginez aplikatu zela salatu zuen. Izan ere, Entzutegi Nazionalak Murtziako espetxe-zentroak, 1973ko Zigor Kodeko

¹¹⁴ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §5-18.

¹¹⁵ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §31-34.

¹¹⁶ Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 34. Artikulua: “El Tribunal podrá conocer de una demanda presentada por cualquier persona física, organización no gubernamental o grupo de particulares que se considere víctima de una violación por una de las Altas Partes Contratantes de los derechos reconocidos en el Convenio o sus Protocolos. Las Altas Partes Contratantes se comprometen a no poner traba alguna al ejercicio eficaz de este derecho”.

70.2 artikulua oinarri zuela, jadanik zehaztutako behin betiko espetxe-irteera data deuseztatu egin zuen. Gainera, Auzitegi Gorenak 197/2006 epaian egindako interpretazioaren arabeko kalkulu berri bat eskatu zuen, zeinak bederatzi urtez luzatzen zuen demandatzailearen espetxe-zigorra.

Halaber, Del Río Prada andereak epaileek gauzatutako interpretazioa “kalitate gabekoa” zela adierazi zuen, *Kafkaris c. Zipre* epaia kontuan hartuta. Komunikabideek eta politikariek botere judizialak hartutako erabaki honetan presio handia egin baitzuten. Horrez gain, delitua egin zuenean ezarri behar zitzaion zigorra baina zigor handiagoa atzeraeraginez ezarri zitzaiola argudiatu zuen¹¹⁷.

Espainiako abokatuak, aldiz, defendatu zuen zigorrak deskontatzen zituzten espetxe-onurak ez zirela GEEHko 7. artikuluan barne biltzen, baizik eta delitu eta kondenak soilik jasotzen zirela, eta horretarako, *Kafkaris c. Zipre* epaian oinarritu zen, izan ere, epai honek zigorra eta zigorraren betearazpena bi neurri ezberdin kontsideratu zituen.

Gobernuak xedapenak ez zirela aldatu, eta jurisprudentzia aldaketa bat eman zela defendatu zuen. Horren harira, auzitegiak zigor araei buruzko zalantzak argitzeko aukera zutela gogorarazi zuen, GEEAko jurisprudentzia betez, hots, *Streletz, Kessler eta Krenz c. Alemania* epaia¹¹⁸. Defentsa amaitzeko, Espainiako Gobernuak ordenamenduan egin ziren azken erreformatatik Parot Doktrina aurreikusi zitekeela adierazi zuen¹¹⁹.

- Printzipioen aplikazioa

GEEAk nabarmendu zuen *contra reo* diren zigor legeen atzeraeraginkortasun eza eta delitu zein zigorren legezkotasun printzipioa (*nullum crimen, nulla pena sine lege*) jasotzen zuela GEEH 7. xedapenak. Beraz, delitua eta delituak dakarren zigorra lege zehaztuta egon behar zutela ondorioztatu zuen¹²⁰.

¹¹⁷ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §37-40.

¹¹⁸ Streletz, Kessler eta Krenz, c. Alemania 34044/96 epaia, 2001eko martxoaren 22koa.

¹¹⁹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §41-44.

¹²⁰ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §45.

Horrez gain, Magistratuek adierazi zuten nahiz eta lege xedapenak argiak izan, interpretaziorako lekua beti egongo zela, eta horretarako Auzitegien jurisprudentzia behar beharrezkoa zela, batetik, zalantza egoerak eta egoera aldaketak beti sortuko zirelako¹²¹. Bestetik, nahiz eta arauak oso zehatzak izan, gehiegizko zehaztasunak ere zalantzarako tarte uzten zuelako (*Kokkinakis c. Grezia*¹²²).

Magistratuen aburuz, GEEHko 7. artikuluan zigorra kontzeptu autonomo gisa araututa zegoen, eta Giza Eskubideen Europako Batzordeak eta GEEAk zigorrari eta zigorraren betearazpenari zegozkion neurrien arteko desberdintasuna zehaztu zuten. Ondorioz, zigorra lanaren bidez ordaintzea zigorraren betearazpena zenez, espetxe-onura hau ezin zitekeen zigorrean barne bildu. Haatik, zigorra eta zigorraren betearazpenaren arteko bereizketa ez zen argia¹²³ (*Kafkaris c. Zipre*).

- Auzitegiaren erabakia

GEEAren iritziz, 1995eko Zigor Erreformaren aurretik gauzatutako egitateei 30 urteko gehieneko mugetik aplikatzen zitzaizkien espetxe-onurak, arau orokor gisa. Halaber, gai honi buruzko lehenengo Auzitegi Gorenako epaiak¹²⁴ praktika hau berretsi eta sendotu egin zuen. Are gehiago, Espainiako Auzitegiek praktikan zigorraren gehieneko muga hori zigor berri eta autonomo kontsideratzen zuten¹²⁵.

Horrenbestez, Magistratuek ondorioztatu zuten Del Río Prada andereak delituak egin zituen unean Espainiako Zuzenbideak (bere osotasunean, jurisprudentzia barne) zigorra eta zigorraren betearazpenaren norainokotasuna ongi zehaztu zituela.

Hori dela eta, Auzitegi Gorenak gauzatutako interpretazioak atzeraeraginez demandatzailearen zigorra bederatzi urtez luzatzeaz gain, lanaren bidez zigorra ordaintzeko espetxe-onura eraginik gabe utzi zela ondorioztatu zuten. Izan ere, nahiz eta GEEH 7. Artikuluak zigorraren

¹²¹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §47.

¹²² Kokkinakis c. Grezia 14307/88 epaia, 1993ko maiatzak 25.

¹²³ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §48.

¹²⁴ Auzitegi Gorenako, Zigor Gelako, lehenengo ataleko, 820 zenbakiko epaia, 1994ko martxoaren 8^a.

¹²⁵ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Rio c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §53.

betearazpena ez barne bildu zigorraren barnean, neurri honek espetxe-zigorra bederatzi urtez luzatzen zuenez, zigorraren norainokoan eragiten zuela erabaki zuten¹²⁶.

Bestalde, Auzitegiaren aburuz zehazteke zegoen Del Río Pradak egitateak gauzatzekoan aurreikusi zezakeen interpretazio berri hau. Arestian aipatutako jurisprudentziaren eboluzioan oinarriturik Magistratuek erabaki zuten demandatzaileak zaila edo ezinezkoa zuela jurisprudentzia aldaketa hau aurreikustea. Izan ere, lanaren bidez zigorra ordaintzea eraginik gabe uzteak demandatzailearen espetxe-zigorra funtsean asko luzatu zuten¹²⁷.

Gauzak horrela, GEEHko 7. Artikulua urratu zela ondorioztatu zuten.

- Askatasun eskubidea (GEEH 5.Artikulua¹²⁸)
 - o Alderdien alegazioak

Demandatzaileak salatu zuen Auzitegi Goreneko jurisprudentzia aldaketaren ondoren bere espetxe-zigorra bederatzi urtez arbitrarioki luzatu zela. Ondorioz, 2008ko uztailaren 3az geroztik bere atxiloketa legez kanpokoa zela¹²⁹.

¹²⁶ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §58-59.

¹²⁷ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §63.

¹²⁸ Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 5.1 Artikulua: “Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, salvo en los casos siguientes y con arreglo al procedimiento establecido por la ley: a) Si ha sido privado de libertad legalmente en virtud de una sentencia dictada por un tribunal competente; b) Si ha sido detenido o privado de libertad, conforme a derecho, por desobediencia a una orden judicial o para asegurar el cumplimiento de una obligación establecida por la ley; c) Si ha sido detenido y privado de libertad, conforme a derecho, para hacerle comparecer ante la autoridad judicial competente, cuando existan indicios racionales de que ha cometido una infracción o cuando se estime necesario para impedirle que cometa una infracción o que huya **después de** haberla cometido; d) Si se trata de la privación de libertad de un menor en virtud de una orden legalmente acordada con el fin de vigilar su educación o de su detención, conforme a derecho, con el fin de hacerle comparecer ante la autoridad competente; e) Si se trata de la privación de libertad, conforme a derecho, de una persona susceptible de propagar una enfermedad contagiosa, de un enajenado, de un alcohólico, de un toxicómano o de un vagabundo; f) Si se trata de la detención o de la privación de libertad, conforme a derecho, de una persona para impedir su entrada ilegal en el territorio o contra la cual esté en curso un procedimiento de expulsión o extradición”.

¹²⁹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §67.

Bestalde, Gobernuak erantzun zuen barneratua 3000 urtetik gorako kondena bat zela-eta zegoela espetxe-zigorra betetzen. Ondorioz, argi geratzen zela demandatzaileak kondenaturik 30 urteko gehieneko muga bete egin beharko zuela. Gainera, *Kafkaris c Zipreren*¹³⁰ epaiaren harira, adierazi zuten Del Río Pradak espetxe-zentrotik jasotako dokumentua proposamen bat besterik ez zela. Alegia, ez zela behin betiko erabaki judizial bat eta hori dela-eta, ezin zitekeela legearen *kalitate falta* argudiatu¹³¹.

- Auzitegiaren erabakia

GEEAk gogorarazi zuen atxiloketek barne ordenamenduan oinarri juridikoak eta “legezko kalitatea” eduki behar zutela (Hots, *Kafkaris c. Zipre*). Horretarako, GEEAk *Amuur c. Frantzia* epaian¹³² oinarrituta zehaztu zuen “legezko kalitateak” lege nazionalak aurreikusgarriak, zehatzak eta eskuragarriak izatea galdatzen zuela, hots, arbitrariotasuna saihesteko¹³³.

Bestalde, Magistratuen iritziz, Entzutegi Nazionalak ezarritako espetxe-zigorraren legezotasuna ez zegoen zalantzan. Espetxe-zentroak zehaztutako espetxe-irteeraren datatik aurrerako espetxe-zigorraren luzapena, ordea, aztertzeke zegoen¹³⁴.

Horren harira, GEEAk askatasun-gabetzaileak ziren zigorren iraupen eraginkorra bermatu behar zuela adierazi zuen. Kasu, zigorraren luzapena demandatzaileak aurreikusi zezakeen, zigorra lanaren bidez ordaintzearen inguruko interpretazio berriarekin. Arestian aipatutako GEEHko 7. Artikuluaren inguruan erabakitakoa zela-eta, hemen ere Magistratuek erabaki zuten demandatzaileak ezin zuela arrazoizko aurreikuspenik eduki bere luzapenean¹³⁵.

Beraz, egitate guztiak baloratu ondoren, Auzitegiak demandatzailearen atxiloketa legez kanpokoa zela kontsideratu zuen.

¹³⁰ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko *Kafkaris c. Zipre* 21906/04 epaia, 2008ko otsailaren 12koa.

¹³¹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §68.

¹³² Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, *Amuur c. Frantzia* 19776/92 epaia, 1996ko ekainak 25ekoa.

¹³³ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §69.

¹³⁴ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §72.

¹³⁵ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko “Del Río c. Espainia” 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §74.

- Berdintasun eskubidea (GEEH 14. Artikulua¹³⁶)

- Alderdien alegazioak

Demandatzaileak E.T.A erakundeko presoek zuzendutako jurisprudentziaren aldaketa bat izan zela salatu zuen, eta jurisprudentzia aldaketa hau helburu politiko batekin egin zela: E.T.A-ko presoek bizi arteko espetxe zigor moduko bat ezartzea. Izan ere, bereziki terrorismo delituengatik zigortuak ziren presoek aplikatu zitzaizkien jurisprudentzia berria.¹³⁷

- Auzitegiaren erabakia

Auzitegiko magistratuak Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia eremu orokorrekoa zela erabaki zuten, alegia; ETAko presoek gain, beste presoek ere eragiten zela. Beraz, berdintasun eskubidea ez zela urratu adierazi zuten¹³⁸.

- Kalteen konponketa (GEEH 41. Artikulua¹³⁹)

Demandatzaileak auzitegiari honako hau eskatu zion: batetik, 50.000 euroko indemnizazioa sortutako kalteagatik; eta bestetik, 1500 euro prozesuak sortutako kostengatik. Demandatuak, aldiz, diru kantitate hori gehiegizkoa zela adierazi zuen, 30.000 euro nahikoa baitziren.

Auzitegiak, 30.000 euroko kalte-ordaina ontzat jo zuen, baita 1500 euro kostengatik ere¹⁴⁰.

¹³⁶ Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 14. Artikulua: "El goce de los derechos y libertades reconocidos en el presente Convenio ha de ser asegurado sin distinción alguna, especialmente por razones de sexo, raza, color, lengua, religión, opiniones políticas u otras, origen nacional o social, pertenencia a una minoría nacional, fortuna, nacimiento o cualquier otra situación".

¹³⁷ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko "Del Rio c. Espainia" 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §76.

¹³⁸ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko "Del Rio c. Espainia" 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §78.

¹³⁹ Giza Eskubideen Europar Hitzarmeneko 41. Artikulua: "Si el Tribunal declara que ha habido violación del Convenio o de sus Protocolos y si el derecho interno de la Alta Parte Contratante sólo permite de manera imperfecta reparar las consecuencias de dicha violación, el Tribunal concederá a la parte perjudicada, si así procede, una satisfacción equitativa".

¹⁴⁰ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, lehenengo ataleko "Del Rio c. Espainia" 42750/09 epaia, 2012ko uztailaren 10ekoa, §87-88.

b) GELA HANDIA

Gala Handiak “Del Río c. Espainia” kasuan aurreko atalak emandako epaia berretsi zuen. Beraz, arestian aipatu bezala, legezketasun printzipioa eta askatasunerako eskubidea urratu zirela erabaki zen. NICOLAU, MAHONEY, VEHABOCIC magistratuak, bakoitzak bere aldetik, epaiaren aurkako bozka partikularrak tarteratu zituzten¹⁴¹.

- GEEH 7. Artikulua

Auzitegiko magistratuek adierazi zuten Espainiako auzitegiak eta espetxeek zigorraren gehieneko muga zigor autonomo eta berri bat kontsideratzen zutela, nahiz eta Espainiako ordenamenduan zigorren metatzeen inguruko araudia anbigua izan. Are gehiago, 1995eko Zigor Kodea indarrean sartzerakoan, lege honek ekarritako aldaketa bat, espetxe-onurak zigorraren gehieneko mugatik aplikatu beharrean, kondena material absolututik aplikatzea izan zela gogorarazi zuten. Orduan, Espainiako Auzitegiak demandatzailearentzat onuragarriena zen zigor kodea aukeratu behar izan zuten, eta hau 1973ko Zigor Kodea izan zen.

Gauzak horrela, Gela Handiak erabaki zuen demandatzaileak egitateak gauzatu zituen momentuan eta 7/2003ko Lege erreformaren harira, Espainiako Auzitegiek emandako autoan, demandatzaileari nahiko zehaztasunarekin adierazi zitzaioela 30 urteko gehieneko muga horretatik aplikatuko zitzaizkiola espetxe-onurak¹⁴².

Gainera, Del Río-ren espetxe-irteera data 2017ko ekainaren 27an ezarri zuen Entzutegi Nazionalako 2001eko otsailaren 15ean emandako kondena-likidazioa erabakigarria ez zela erabaki zuen. Batetik, zigorra lanaren bidez ordaindutako egunak kontuan hartzen ez zituelako, bestetik, zigorra lanaren bidez ordaindutako egunak jasotzeko funtziorik ez zuelako¹⁴³.

Bestalde, Magistratuek erabaki zuten Auzitegi Gorenak 197/2006 epaian garatutako jurisprudentziak zigorraren betearazpenean eragina edukitzeaz gain, zigorraren

¹⁴¹ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Río c Espainia” 42750/09 epaiko bozka partikularrak, 2013ko urriaren 21ekoa, §102-103.

¹⁴² Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Río c Espainia” 42750/09 epaia, 2013ko urriaren 21ekoa, §107-109.

¹⁴³ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Río c Espainia” 42750/09 epaia, 2013ko urriaren 21ekoa, §100.

norainokotasunean ere eragina izan zuela. Izan ere, zigorren metatze arauak aldatzerakoan zigorrari ezarritako definizioa ere aldatu zuten¹⁴⁴.

Bukatzeko, Gela Handiak nabarmendu zuen Parot Doktrina izeneko jurisprudenzia aldaketak zigorra lanaren bidez ordaintzearen erakundea “eraginkorki” indargabetu zuela. Ondorioz, demandatzaileak egitateak gauzatu zituen momentuan ezin zuela aurreikusi espetxe-zigorraren luzapen hau¹⁴⁵.

- GEEH 5. Artikulua

GEEAk kontuan eduki zuen, besteak beste, 2000ako irailaren 30eko autoan espetxe-zigorra betetzeko 30 urteko gehieneko muga ezarri zitzaiola Del Rio andereari, eta ez zela iritsi gehieneko muga hori betetzera. Are gehiago, Auzitegiaren aburuz, demandatzailearen kondenaren eta 2008ko uztailaren 2az geroztiko espetxealdiaren artean kausalitate lotura bat zegoen: Kondenatik eratorritako 30 urteko gehieneko muga.

Haatik, GEEAk erabaki zuen Del Rio andereak behin-behineko kondenaren kalkulu dokumentutik ezarritako espetxe-irteeraz geroztik, ezarritako espetxealdia legezkoa zen edo ez erabakitzeke zegoela, eta horretarako kondena ezarri zeneko legeak aurreikuspenaren ukanbearra betetzen zuen aztertu behar zegoela. Gauzak horrela, GEEAk arestian 7. artikulua inguruan erabakitakoaren harira atal honetan ere gauza bera adierazi zuen: “Del Rio Prada andereak, egitateak egin zituenean eta espetxean zegoenean ezin zuen aurreikusi Auzitegi Goreneko 197/2006 epaiaren irizpide aldaketa hau, zeinari zigorra lanaren bidez ordaintzeari buruzko irizpide berria zela-eta espetxe-zigorra 9 urtez luzatuko zitzaion”¹⁴⁶.

Beraz, Auzitegiak erabaki zuen 2008ko ekainaren 3tik Del Rio Pradari ezarritako zigor-askatasun-garbitzailea legez kanpkoa zela¹⁴⁷.

¹⁴⁴ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Rio c Espainia” 42750/09 epaiko, 2013ko urriaren 21ekoa, §107-109

¹⁴⁵ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Rio c Espainia” 42750/09 epaiko, 2013ko urriaren 21ekoa, §107-109

¹⁴⁶ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Rio c Espainia” 42750/09 epaia, 2013ko urriaren 21ekoa, §131

¹⁴⁷ Giza Eskubideen Europar Auzitegiko, Gela Handiko “Del Rio c Espainia” 42750/09 epaia, 2013ko urriaren 21ekoa, §132

4. ONDORIOAK

Nire aburuz zigorrak gogortzeko lehenengo inflexio puntua 7/2003 Lege erreforma izan zen, izan ere, arestian aipatu bezala, zioen azalpenak horrela zioen: “para el cumplimiento íntegro y efectivo de las penas”. Zigorraren ordainketa funtzioa indartze aldera, erreforma honek honako baldintza hauek eskuratzeko aukera gogortu zuen: Baldintzapeko askatasuna, irteera-baimenak, hirugarren gradua.

Bigarren inflexio puntua Parot Doktrina izan zen, zeinak oinarri juridikoak baino gehiago, helburu bat izan zuen doktrina izan zen, izan ere, Entzutegi Nazionalak hasiera batean eman zuen autotik Auzitegi Gorenak eman zuen epaira argudio juridikoak oso ezberdinak izan ziren. Hala ere, Entzutegi Nazionaleko eta Auzitegi Goreneko 197/2006 epaiaren helburua, momentu oro, E.T.A-ko barneratuek zigorrak oso-osoki betetzea izan zen (7/2003 legearena bezala). Horrela, EPPK-ko kideek espetxean ahalik eta denbora gehien igaro behar izateko.

OSTOLAZA abokatuaren arabera¹⁴⁸, Auzitegi Gorenak irizpide aldaketa eman baino lehen, 1973ko Zigor Kodean oinarrituta kondenatuak izan zirenek eta zigorra lanaren bidez ordaintzen zutenek, kondena betetzen ari ziren neurrian, behin-behineko kondenaren kalkulu dokumentu bat jasotzen zuten. Horrela, preso gehienei, zigorra lanaren bidez ordaindu ahala, espetxe-irteera data gerturatsen joan zitzairen. Beraz, kalkulu dokumentu horiek ez ziren finkoak, etengabe aldatzen ziren.

Horrela, espetxe-onura honen bitartez etengabe esaten zitzairen noiz izango zen espetxe-irteera data, presoari aurreikuspen bat sortuz. Orduan, irizpide aldaketa eman zenean, esate baterako, hurrengo hilabetean espetxe-irteera data zehaztuta zuen presoari, hamar urte gehiagoz zigorra bete beharko zuela jakinarazi zitzaion.

OSTOLAZA abokatuak, egun batetik bestera aldaketa hau jasotzea presoentzat oso gogorra izan zela adierazi zuen. Izan ere, espetxe-zigorraren luzaketak kalte psikologiko eta fisiko larriak sortu zizkien presoiei.

¹⁴⁸ OSTOLAZA, O., «Elkarrizketa», zigor zuzenbidean aditua eta 373 Abokatuk kooperatibako kide, 2020ko maiatzaren 3an, *cit.*

GEEAk emandako epaiak legezketasun printzipioa urratu zela erabaki zuen, Parot Doktrinak zigorraren definizioa aldatu zuelako. Nik neurea egiten dut interpretazio hau, izan ere, zigorraren metatze arauak aldatzeak zigorraren autonomian eragin zuzena du. Horren adibide izan zen 1994ko Martxoaren 8ko epaia, zeinak gehieneko muga zigor autonomo eta berri gisa definitu zuen. Are gehiago, Auzitegi Goreneko 197/2006 epai bitarteko epai guztiek modu horretara interpretatu zuten, inplizituki jurisprudenzia hori beraiena eginez.

Epaia jasotzerakoan, jarraian Espainiako Gobernuak GEEAko lehenengo atalaren erabakia Gela Handira errekurritu zuen, eta EPPK-rentzako lan egiten zuten abokatuek eztabaida juridiko hau argitu bitartean, Entzutegi Nazionalari kautelazko neurri barneratuak aske uzteko eskatu zioten. Baina Gela Handiak aurreko epaia berretsi arte espetxean jarraitzea erabaki zuen.

Auzitegi Gorenak, GEEAko Gela Handiko epai hau jasotzerakoan, botere legegileari, GEEAko epaiak betearazteko arauak sortzea eskatu zion, izan ere, Espainiako legedian ez zegoen epai hauek betearazteko mekanismo juridikorik¹⁴⁹. Hala ere, mekanismo juridikorik egon ez arren, Entzutegi Nazionalak ez zuen eragozpenik ezarri eta presoak multzoka kaleratzen joan ziren.

Bukatzeko, konpentsazio ekonomikoei erreparatuz, Inés Del Riok izan ezik, beste barneratuek ez zuten konpentsazio ekonomikorik jaso. Del Rioren kasuan, 50.000 euroko kalte-ordaina ez zioten onartu, 30.000 euroko kalte-ordaina ezarri baitzioten. Dena dela, konpentsazio ekonomikoa ez da nahikoa Parot Doktrinak galduarazitako lagun arteko, familiako eta bizitzako uneak berreskuratzeko.

¹⁴⁹ Auzitegi Goreneko (bigarren ataleko) akordioa, 2013ko Azaroaren 12a.

5. BIBLIOGRAFIA:

- AYALA, A., «El principio de Legalidad Penal y su configuración como derecho subjetivo en el sistema regional Europeo de protección de los Derechos Humanos», *Foro Nueva época*, Iss. 20, 2017, 28-29 orl.
- BUSTOS, J., *Derecho Penal Parte General*, PPU, Bartzelona, 1994.
- COBO DEL ROSAL, M., VIVES T.S., *Derecho Penal Parte General*, tirant lo blanch, Valentzia, 1987, 47-57 orl.
- CORRECHER, J., «Principio de legalidad penal: ley formal vs. law in action», *Seminari Interdepartamental, Facultat de Dret, Universitat de Valencia*, 2016.
- CUERDO, A., *La doctrina Parot, el tribunal europeo de derechos humanos y la separación de poderes*, Iustel, Madril, 2014.
- CUERVO, M.M., *Fundamento del Nuevo Sistema Penitenciario Español*, Conferencia Pronunciada en la apertura de la Escuela de Estudios Penitenciarios en la Universidad de Madrid, 1940.
- DE VICENTE MARTÍNEZ, R., DÍAZ, M., MARTÍNEZ, R., *La aplicación práctica del incidente de acumulación de condenas*, S.A. BOSCH, Bartzelona, 2017.
- GONZÁLEZ, C.P., «Principales novedades de la reforma del Código Penal de 1995», *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 2004.
- GISELLA D., *Los Beneficios penitenciarios como instrumentos de acercamiento a la libertad. Análisis desde la legislación Iberoamericana*. Tesis Doctoral en la Universidad de Alcalá. 2014.
- GUINARTE, G., «El concurso "medial" de delitos», *Estudios penales y criminológicos*, Iss. 1137-7550, 1998-1989, 153-206 orl.
- JOSHI, U. (1992), «Unidad de hecho y concurso medial de delitos» *Anuario de derecho penal y ciencias penales*, Iss. 0210-3001, 1992, 633 orl.

- LANDA, J., « Ejecución de penas y principio de legalidad ante el TEDH», *InDret Revista para el Análisis del Derecho*, Vol. 2. 2012.
- LLOBET, M., «La ficticia realidad modificada por la Ley de Cumplimiento Íntegro y Efectivo de las Penas y sus perversas consecuencias» *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 2007.
- MIR PUIG, S., *Derecho Penal Parte General*, Editorial Reppertor, Bartzelona, 2002.
- ORTEGA, R., «La Acumulación Jurídica de Penas: Análisis de la STS 222/2014 de 7 de marzo de 2014», Trabajos Fin de Máster UVa, 2017.
- OSTOLAZA, O., «Elkarrizketa», zigor zuzenbidean aditua eta 373 Abokatuk kooperatibako kide, 2020ko maiatzaren 3an.
- POLAINO, M., Derecho penal, parte general, Editorial Bosch, Bartzelona, 2001.
- QUINTERO, G., Derecho Penal Parte General, Editorial Graficas Signo, Bartzelona, 1986.
- REFWORLD ERAKUNDEA, *Council of Europe: European Commission on Human Rights*.
- RÍOS J.C., SÁEZ, M.C. «Del Origen Al Fin de la Doctrina Parot», *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, Iss.1698-739X, 2014.
- ROSSEAU, J.J., *El Contrato Social o Principios De Derecho Político*, elalph.com, 1999, 83 orl.
- RUIZ, J.D., «El "derecho al trabajo" en las cárceles franquistas», *Derechos y libertades Revista del Instituto Bartolomé de las Casas*, Iss. 1133-093, 2016, 265-305 orl.
- RUZAFAR, R., «El País Vasco, ¿una transición diferente? Sombras en una batalla», *La historia a través del cine*, 2004.
- SANZ, E., *Regresar antes: los beneficios penitenciarios*, Dirección General de Instituciones Penitenciarias. Ministerio del Interior. Madril, 2007, 137 orl.

- TAMIETTI, A., «Le Principe de Légalité aux Termes de l'Article 7 de la Convention Européenne des Droits de l'Homme», *EUCRIM: The European Criminal Law Associations Forum*, Vol. 5, 2015.
- THE DIRECTORATE OF THE JURISCONSULT OF ECHR, *Guide on Article 7 of the European Convention on Human Rights*, European Court Of Human Rights, 2020.
- VARONA, A., «El incidente de acumulación jurídica de penas: propuesta de "lege ferenda"», *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, Iss. 1888-3443, 2019.
- VELARDE RODRÍGUEZ J.A., «El principio de legalidad en el Derecho Penal», *Lex: Revista de la Facultad de Derecho y Ciencia Política de la Universidad Alas Peruanas*, Vol. 12, Iss 13, 2014, 225-242 orl.
- ZABALA, C., «La "nueva" refundición o acumulación de condenas: el olvido lamentable del principio de legalidad», *Cuadernos de Política Criminal*, Iss. 0210-4059, 2006.
- (2002ko abenduaren 30a). Diecisiete etarras excarcelados en los últimos años no han cumplido ni el 40% de la pena impuesta. *El Mundo (zerrendan azkena)*